



AMA BENERAGARRI JOSEFAREN BIZITZA

Agustin Kardaberaz

Iturria: *Euskal lan guztiak*, Agustin Kardaberaz (faksimilea).
La Gran Enciclopedia Vasca, 1974.

Klasikoen Gordailuan:
<http://klasikoak.armiarma.com/idazlanak/K/KardaberazJosefa.htm>

Klasikoen Gordailuak egindako lanak oro dominio publikokoak dira, eta, Jabego Intelektualaren Legearen arabera jatorrizko idazlanak bestelako eskubiderik ez baleuka, nahi bezala erreproduzi daitezke.

J H S

**AMA BENERAGARRI
JOSEFA
SAKRAMENTU GUZIZ SANTUARENA
ZERITZANAREN
BIZITZA ETA BERTUTEAK**

Aita Agustin Kardaberaz-ek
Loiolako Etxe Santuban
animen onerako
Euskaraz ipiña

A. M. D. G.

TOLOSAN: Eusebio Lopez-en moldiztegian.
1882 garren urtean



IHS

SARRERA

Jaungoikoaren ontasun mugabageak beretzat esleitutako anima zorionekoen artean Ama Josefa Sakramentu guziz Santuarena bat, eta guziz seinalatua izan zan. Onen bizitza miragarria gure ditxa andirako, Maisu sonatu D. Agustin Agirrekoak, txit-ederki, zentzu begiramentu eta argi-andiaz, eta nik-esan-al-baño obeto eskribatuta, Josefa Santaren konfesore eta illtzen lagundu zionak bezela, soma andiaz utzi zigun: eta nik beraren egjazko adiskideak bezela, nere begiramentu guziko Liburugille oni jarraitu-bearra, txit atsegin det: baña ez berak bezela, eta ez luzaro; ezpada laburtxo, eta animen onerako-bearren dana artuko det.

Orretarako, nere irakurlea, lenago esan nai dizut, ezen Josefa doatsu au Azkoitiako erri guziz Nobleko alaba, gure Probinzia guziaren hondragarri eta bertutezko mirari, eta zeruko joia preziatua izan zala. Josefa Maietzaren lenengo egunean, eta milla seireun eta berrogeita amabigarren urtean jaio eta milla zazpireun eta ogeita bostgarren urtean, eta otsaillaren ogeita lau-garrenean ill zan.

San Felipe eta Santiago egunean Zeruko lore eder au jaio, eta bataiatu, eta San Matias Apostoluaren egunean ill, edo Zerurako suerte ona izan zuen.

LENENGO LIBURUA

**JOSEFAREN JAIOTZATIK
BERE NOBIZIADURAÑOKOA**



LENENGO BURUA

JOSEFAREN JAIOTZA ETA AZIERA

Pedro Larramendikoa eta Marta Larrañaga-koa, izen orietako, eta anziñako jatorrizko beren etxe purube nobleetakoak Josefaren gurasoak izan ziran. Oek Azkoitiko kalean bizi ziran, eta beren ezkontza santuaren fruitu bakar izan zan alaba au Santa Maria Erreala deritzan, Ama Birjiñaren Elizan bataiatu zan eta Josefaren izen gozoa eman zioten, Ama Birjiñaren mantupear, eta San Jose gloriatsua anparoa bertatik zeruak, betiko artu zezan, gero denboraz aur onen ditzak Jesus Sakramentatuaren izen jainkozkoaz, Santa Brijidaren gurutze santuaz, eta Zeruko Esposo Jesus-en eratzunaz sellatu eta koroatzeko.

Belen-go estalpetxo, edo Jesus onaren estrabi edo ganbelaren gisako etxetxo batean, jaiotzatik aren antzeko izateko, gure aurr jaio zan. Onen gurasoak lurreko gauzetan beartsuak ziran; baña zeruko ondasun andi bat, eta perla preziatu ezkutatu bat beren alaban Jaunak eman zien. Odolez nobleak, baña bearrez estutxo edo nekez; baña kristau on jainkoiak bezela Jainkoaren pake ederrean bizi ziran. Ezizana pakeai ekin, ondasunak gerra biziarekin baño ohea da; eta estuasuntxo humilltasun eta beste bertuteen adiskide edo lagun on izan oi da. Hori Jesus maiteak bere jaioleku bezela esleitu zuen, eta bere Ama doatsu eta onen Esposo Jose Santuarentzat, eta gure Josefarentzat siñalatu zuen.

Bere Ama Marta biotz-samurrak alaba au txik kontuz, Jainkoaren joia estimatua bezela, bere bularrean azi zuen eta ortik bere onerako griña eman zion. Aurkeririk, aurr zalarik, ezertan erakusten etzuen: urrutitik begiratzen zioten guziak, gutxitan ikusi oi dan moldesi, sosegu eta onerako siñaleak ikusten ziozkaten: bere kide edo adiñekoakin ibilli edo egon nai etzuen, eta zentzu elduko andreetara alderatu oi zan, oien ejemplo eta erakutsiak artzeko. Arrazoiaren argi edo usora eldu baño len aur au, guziz bere kontura artua bezela, Jaunak bere bedeinkazio gozo, eta berekirozko graziaz bete, eta siñalatu zuen, eta Josefak ondo erakutsi edo adierazi zuen.

Txiki zala, gurasoak berakin oiean idukitzen zuten, baña aurrak, urteai aurre artuta, bere modestia eta garbitasunaren amorezko siñaleak ordutik eman zituen, eta bere erregu gaitzgabe eta negarrakin amari txit estu eskatu zion, bakarrik lo egiteko leku edo oitxo bat egin ziozala. Bere

baztertxoan lo egiteko bere gorputza alegin guziaz txit estaltzen zuen, lotan ere bere gorputzaren alderik txikiena ere agertu etzedin, edo erioztzak gauaz artzen bazuen ere, berak gogo zuen moldesiarekin arki zediñ. Garbitasunaren onelako kontu ederra zeukan aurrak ondo erakusten zuen, bere anima Santa Jainkoari osoro emana eta beraren serbitzura eskaña zedukala. O zer zeruko lezioak, ala gurasoenzat, nola umeentzat txikitan berakin ez idukitzeko: gaitzerako makurtasunak txit laster okerrerako begiak argitzen ditu, batez ere alabetan. Ala oien lonsa santu, eta garbitasunerako beti gurasoetatik eta anaietatik berezituta eratzan.

Garai onetan bere izeba, aitaren arreba batek *Aita gurea eta Abe-Maria* erakutsi, eta ondo erreztzen ikasi zuen. Gero Ama Birjiñaren *Sal-bea* ikasi, eta bere biotzeko atsegin eta jaiera andiaz askotan esan oi zuen, eta *orazio ederra* deitzen zion eta errukien Ama maiteari deitzeko berak esan, eta beste aur-lagunai eta andiangoi ere, esan erazitzen zien. Onela Ama guziz santaren alabanzeetan eztizko atsegin-kontentu andi bat bere animan sentitzen zuen. Sei urteron zebillen Josefa, eta ezagüera baño len borondate onaren zale santua beragan agertzen zan, graziaren argitarako prestatuaz. Eta orra txikitatik aurrak ondo azitzea eta Jaungoikoaren gauzetara makurtzea zer gauza santo eta bearra dan.



BIGARREN BURUA

JOSEFAREN LENENGO KOMUNIOA, ETA AMA BIRJIÑAREN LENENGO MESEDE SEÑALATU BAT

Baldin Josefa, aur gaitzagabea, gauz onera añ emana bazan, jakiña da, Zeruko grazia eta mesede guzien Atea Ama Birjiña dala, eta bere doai guziak Jaunak iturri onetatik animai zabaldu nai diztela, eta onen amorez beregana erakarri nai dituela. Esan diran orazioak bai, baña Fede santuko misterio bearrenen berririk Josefari aurtasun orretan iñork ere eman etzion: eta berak zer obligazio zuen oraindik etzekien. Sei urte eta erdi zeuzkan, eta orra non (nondik edo nola eztakigu) komulgatutzeko, edo Jesus Sakramentua bere biotzean artzeko gogo andi batek eman zion, eta gure Kolejioko Elizan sartu zan. Aita bat konfesonarioan ikusi, eta aren oñetan jarri zan.

Konfesoarea aur gaitzgabe ori ikusi, eta lenengoan farrari eman zitzaion. Baña gero, gure Fedeko Artikulu lenagoen edo bearrenak galde-tu eta arriturik enzun zuen, guziaz txit egokiro eranzuten ziela, eta Trinidad, Enkarnazio eta Aldareko Sakramentu guziz Santuaren Misterioak ederki eta argiro, esaten zituela. Konfesoarea biziro, eta Josefa bera ez gutxiago, dotriña oien gañean arritu ziran. Berak gero esan oi zuen, etzekiala nola eranzun zuen, bada iñork ere erakutsi etzion, eta Trinidad eta Enkarnazioko Misterio ezkutataen izenik arteraño enzun etzuen. Seguru dirudi, Espiritu Santua bere Maisu bakar izan zuela, eta bere argi eta jakintasun añ miragarria eta Jesusen amorezko Sakramentuaren gose eta egarri santua añ goiz aurrari eman ziozkala.

Konfesoareak sei urte eta erdiko aurtxo eta aren aziera ondo ikusi, eta begiraturik, eta Zeruko mesede eta Jainkoaren eskua onegan zebillela ezaguturik, komulga zedilla, edo bere Jaun eta Jaungoikoa ar zezala, esan zion. Josefaren anima garbi santuak Jesus Sakramentua bere biotzean artu zuenean, amorezko sugar bizi bat barrundatu zuen; eta Jaunaren argitasunaz izan zuen gose edo egarrialdia anima justu aren asealdi edo bete aldia izan zan, eta Komunioko mesedearen esker onez betiko geratu zan; ala Jainkoarekiko, nola bere konfesoarekiko, zeren alako gozotasun zerukoa bere iturrian progatzera bialdu zuen: ori ikusten zuen, edo gogo-

ratzen zitzaion guztian, ongille andi bati bezela begiratu, eta Jaunari erre-gutzen zion, berari egin zion on andi ori onda paga zegiola.

Lenengo Komunio onetan artu zituen Zeruko grazia eta animako indarrak eriotzeraño aurrera eraman zituen, Jesukristorentzat bakarrik bizitzeko, eta bere, nai edo borondate guzia osoro ukatu, eta Jesus onare-na egiteko. Aurtxo Josefak Jaunaren gloria eta gustoa billatzen zuen bitar-tean, Ama Santisimak erregalo andi batekin bere anparo edo mantupean kadukala, erakutsi zion. Lenengo Komunitatik laster gau batean bere oiean sartu eta Jainkoa obeto serbitzeko, edo gauza guzietan bera baka-rrik billatzeko eta aren ofensa guzietatik beti iges egiteko bideak artzen, eta biziera berri santu bat egiteko kontuak ateratzen jarri zan: eta orran on gela guzia argitasun txit eder batek bete zuen, eta orren erdian Ama Birjiña, esan al baño ederrago, eta Majestade txit andian etorri, edo ager-tu, eta errukizko bere begi ederrak ditzazko aurtxo onetan ipiñi, eta berak dakien bezela, gozarotu zuen. Ikusaldi eder au luzea izan zan: gurasoak an zeudelarik oartu etziran, baña Josefak zintzo begiratuta, ikusi zuena iñori ere esan etzion: eta andik urte batzuetara, bere Konfesoari guzia agertu zion. Ikusaldi edo Ama guziz Santaren bisit onetan Zeruko zer ikasbideak artu eta zer dotriña ikasi zuen, nor esan lezake?

Gauza segurua da, Errukizko Ama maiteak Josefaren biotz garbi santuaren deiak enzun zituala; eta aur onek askotan eskatzen zien bezela: *Ea, bada, gure bitartekoa, zure begi urrikaltsu oriek biur tzatzu gūgana*, ala Zeruko Erregiña gozoak enzun, eta bere aurrak ikustera etorri, eta sari ugariaz ordañdu oi zuela, eta au zan guzia Ama Birjiñari eta Jesus gozoiari betiko emana geratu zan Sakramentuen usuera, edo al zuen guzian Komunio santua artzea, guziz nai zuen, eta amorezko jaietan sutu, eta kontuz txit prestatzen zan. Santuak diotenez, Alpeetako mendi goituetan erbiak neguan betiko elurra ikusi eta janaz, zuri zuri biurtzen dira: ala Josefa, Jesus-en edertasun eta garbitasuna beti Komunioan janaz, Kastidade eder garbiaren lore egiñik geratzen zan.

Ala zazpi urte baño len Birjiña guzien Ama garbienari bere garbita-suna agindu zion. Gure Kolejioko Elizan, Ama Birjiña aldare batean beneratzen da: onen aurrean jaietaz zegoela, Zeruko bultzada bizi batek biotzean Josefari eman, eta esan zion: *Birjiña guziz santa, zure antzera nik Birjiña edo donzell izan bear det*. Onela goiz, edo lasterka bezela Ama Birjiñaren eskuetatik Jesus bere Esposo jainkozkoaren besoetan edo bio-tzean ditz andiz betiko sartu zan.



IRUGARREN BURUA

BIZITZA BERRIAREN ASIERA ORAZIO MENTAL EDO BIOTZEZKOA, ETA GORPUTZAREN ILLERAZTEAK.

Denbora orretan, San Jose gloriatsuaren egunean, andre batzuek Santuaren ermitan, meza enzutera zijoazela, gure aurrak ikusi zituen. Kaletik San Jose-ren ermita jakiñera, legoa erdi bat dago, eta Josefak zazpi urte bete etzituen. Bidean urteetan aurreratutako andre batekin batu, eta oni jolasean galdetu zion: Andrea, orazio mentala zer da? Aurra, esan zion; orazio mentala besterik ezta, ezpada, Jainkoaren aurrean gauzez belauniko jarrita, auzpezez dagoela, beñ eta berriz Aita gurea esatea. Josefak ori aditu, eta San Joserren gau artan orazio egiten asi zan: eta nola Jainkoak biotz onari begiratzen baition, eta bearrekoen eresiak aditzen baitituen, andrearen paltak, Maisu obeak bezela, San Josek inñolaz ere bete zituen, eta, orazio egiten ordu artatik erakutsi zion. Orduan ikusi zan Santa Teresak diona; Orazio egiteko maisurizez duenak San Jose ar beza Maisutzat, eta bidean utsegingo ezta.

Arpegiaz lurrerañoko egoera umil artan jarri, eta gau oro ordu bi eta iru Paternoster edo Aita gurearen orazio jainkozkoan igarotzen zituen; eta ez askotan esanaz, baizen beñ edo berriz. Eskari ederretan soseguz pensatuaz, Espiritu Santuak aurraren biotza argitu eta berotzen zuen, eta oraziotik Jesukristoren amore irazeki bat ateratzen zuen.

Orazioa eta bere buruaren illeraztea alkarrekin jaio eta azi oi dira, eta senide onak bezela biak beti oi dabilltza. Jaungoikoaren amoreak espiritua jotzen duenean, gorputza jo nai oi du. Josefak zortzi urteetaronz zebillan, eta penitenziak egiteko asmoak artu zuen. Lenengo asmoa loaren neurri estua izan zan: gau oro ordu bi ta erdi eta ez geiago, lo egitera, eta gañerako denbora otoitz eta jarduera santuetan eramatera bertatik jarri zan. Lo geiago egiñ etzezan, arri andi bat bere gañean arzen zuen, aren kargak esna zezan, Amak ori ikusi, eta oiera joatea agintzen zionean emen mortifikado gogorra arkitzen zuen; bada izarepean tella eta bidrio puskak eta egur desberdiñak, eta punta zorrotzakiko gurutze bat ipiñi, eta atse-den-lekuan tormentu edo martirio bat arkitzen zuen.

Ordu bi ta erdi nekez an eraman, eta jaiki eta bereala odolezko azote gogorrak luzaro artzen zituen. Soka edo espartzuak miñ gutxi ematen

zioten, eta penitenziarren argizagizko bolatxo bidriozko puntadunak topatu, eta oriekin bere gorputz gaitzgabea urratzen zuen.

Penitentzia egiteko zedukan egarri biziak zilizioak billatzeko gogoa eman zion: katetxo puntadunak buruan, besoetan, iztarretan eta gerrian tormentu aundiaz eta aragia usteltzerañ zekaizkien: gero berak oi zion; aurrari bezela maitez aide edo adiskideren batek laztan ematen bazion, orduan miñ edo oñazerik biziena artzen zuela, zeren puntak kerrian guziz barrura sartzen zitzaiozkan.

Jesus maiteari bere Pasioan beazuna ozpiñetan eman ziotela aditu, eta aren antzera Josefak artzen zuen, eta kedarrez eta auts samiñez bere au gozoa agitz tormentatzen zuen. Penitentzia, latzak eta orazio luzeagoak egitera eremura joateko gogoak eman zioten; bañia gurasoen baimenik eziñ izango zuela ikusita, belar utsak eremuan bezela, eta oriek alik samiñenak, jateari eman zion: luzaro penitenti au egin zuen, eta gurasoak aparitan berakin ipintzen bazuten, lo-gale bazan bezela batera eta bestera erortzen zan, eta orrekin apaldu gabe, oiera bialtzen zuten, eta orrela bere burua illerazten zuen.

Jesukristoren fedeagatik Martiri bat erre zutela aditu, eta bera erre martiri izateko antsiakin, illeti batekin izterra erre zuen, eta zulo andi bat egiñ, eta an ikatz sutuak sartu eta luzaro iraun zion. San Franzisko Jabierrek bere izterra korapilloz betetako sokarekin bidean txit estutu zuela aditu, eta aren antzera ori bera Josefak egin zuen, eta beregan onek ikasi zuen, gorputzaren tormentu andienetako bat zala, eta batez ere eskallertan igo edo jestean.

Tormentu mueta berriak arkitu nai, eta eziñ, eta negar andiak egiten zituen, eta bekokiak iskiña, edo arri-ertzetan golpe gogorrak artzen zituen. Pena orietan Jesusen amorez artzen zuen atsegiñak ere bildurtzen zuen, eta zer egiñ etzekien. Zazpi urteetatik amarretarañ bere gorputz gaitzgabe garbia onela tormentatu zuen: geiegizkoa bazirudien ere, Jainkoaren spirituak guzirako indar eta biotza ematen zion.



LAUGARREN BURUA

ETSAIAREN KONTRAKO PELEA, ZEREN OTOITZ ETA PENITENZIAK GALERAZI NAI ZIOZKAN. AITA ESPIRITUALA ARTU ETA NOLA KASTIDAEKO PROMESA EGIN ZUEN

Aurtxo Jainkoaren esleitu au egunoro orazio eta penitentiatan aurre-rago zijoala, gure etsaiak ikusi, eta amorru portitzaz aren kontra jaiki zan. Nola etxea estu edo itoa baitzan, bere azotaldi luzeetan gurasoak oartu edo senti etzezaten, Jainkoak gogoa emanta, ondo eskutatzeko gauaz teitatura igotzera saiatu zan, eta bere era guzira penitenziak egiten zituen, eta andik jatxi eta bere oratorioa esaten zion leku polit bat Ama Birjiñaren eta Santuen imajiñakin apainduta zedukanean bere orazio aldi luzea egiten zuen. Bere jaiera edo gauz onak asitzean, ots eta oiuska izugarriak aditzen zituen bertan zegoen ibaian: eta illargi zanean, abere mueta edo monstru izugarriak orro andiak ematen bere begiaz ikusten zituen.

Zeruko argiarekin bereala ezagutu zuen Josefak, bere penitentzia eta orazioa galerazitzeko deabruaren asmazio eta trazak zirala, baña aurrean kadukan bere Ama Santisimaren babesean etsaiaren beldur gabe, bere jarduera santuetan aurrera oi zijoan. Orazioan Jainkoak bere doai, eta bertuteen, eta batez ere Zeruko lore eder garbi garbitasunaren edertasuna erakutsi zion; eta len zazpi urte baño len Ama Birjiñari bere gogo, eta eresiak agertu baziozkan ere, orañ aren Seme Jesus Esposo jainkozkoari bere anima betiko garbitasunaren promesarekin osoro eta betiko eman nai zion. Amar urteen aldean zebillen; bere donzellatasuna Ama Birjiñaren eskuetatik bere Esposo maite Jesusi eskañi nai zionean: eta Jaunaren bere barrengo argiak, ori ondo ezagutzeko bidea asmatzeko, Aita espiritual bat billaerazi zion.

Konfesoreak Josefaren aotik Jainkoaren doai eta mesedeak, eta onen jardunbide, gogo, asmo, eta bizitza berriaren kontua aditu, eta ondo begiraturik esan zion: *Promes andi ori egin zezala; eta eremurako buruzpideak utzi, eta obediencia-ko sakrifizioa bere gogo gauza guzietan ukatu eta Jainkoarena beti egiteko deseo santuak botzean gogotik josi zitzala.* Jainkoak Josefari obediencia-ren ofrenda zeñ andia zan erakutsi zion, eta txit kontuz bide ori betiko artu zuen. Penitenti, otoiitz eta beste jardunbideen gañean hitz egiñ, eta

bear zan neurri eta moldeera gauza orietan Konfesoreak eman zion. Donzella garbi onek kastidateko promesa eginda, bere biotza Jaunari oso eskañi zion: oraziorako gaia Jesus maitearen Pasioko zazpi pauso jakiñiak astearen egunetarako Konfesoreak emanta, artu zituen. Asteoroko bere azotaldi eta zilizio siñalatuaz ostean, eragabeko beste penitentzia geiegiak kendu, eta Konfessore zintzo eta zelotsuak zuzenbide ederretan Josefa sartu zuen.



BOSTGARREN BURUA

MEDITAZIOAREN FRUTUA, ETA AURRERA IKASI ZUEN DOTRIÑA

Ama Santa Teresa Zerutik argideratu, eta obediencia ta oraziorako Maestra beneratuak Avilan tratatu zuen lenengo Jesuitari zenbat zor zion, berak kontatzen du. *Onek esan zidan, dio Santak, egunoroko orazioa Pasioko pauso batean egin nezala eta orrez probetxatu nedilla. Atsegin kontentuz bete eta alaitu ninduen. Agintzen zidana egiteko gogoia artu nuen, eta ala egin det. Konfesarari obeditzeko grazia Jaunak egin dit.* Santa au gure Josefak imitatu zuen, ala kasi beti Jesuitak bere Aita espiritual izatean, nola oriei obeditzean.

Bere otoitzaren gaia Jesusen pausoetan artu, eta bere loaldia igaro, eta gau guziaz meditazio santuan igarotzen zuen. Jesusen penak bere biotzean ondo ausmartu, eta pisatuaz meditazio onetatik ateratzen zuen frutua, bere Jabe Jainkoagatik egun oro eta geiago padezitzea zan: ori beti eskatzen zion: eta baldin egunen batean ezer gabe bere burua ikusten bazuen, bere Jauna ofendituko zuela, guziz bel-dur zan. Baña onen Konfesoreak ziona: «Josefak pekatuaren kontra zuen gorrotoan, txikitatik ere, infernu edo purgatorioaren gogorazioak parterik etzuen, ezpazan Jainkoaren ontasunak bakarrik, zeñaren gusto eta borondateak osoro beregana zeraman».

Orazio onen frutu egoki jakiñak ziran: ala Jesus onaren errukia, onen tormentuetan, nola Jesus Sakramentatuaren amore sutu betikoa. Negar samiñ edo gozoetan aren anima urtzen zan, eta orretarako bakar-tasuna billatzen zuen: eta kalera bear zuenean Jesusen amorez desegiñ, eta bere al guziaz Parrokian, edo gure Elizan sartu, eta Jauna adoratzeko luzaro egon, eta gozarotzen zan. Onelakoak ziran Jesusen Pasioko eta bere amorezko Sakramentuaren frutuak.

Amaika urte baño len etsipen bat Jainkoak eman zion, berari eskañirik dauden animetan garbitasuna zeñ minbera eta autsi-erraza dan, ikuse-raziaz. Lagun batek guziz estu esan zion, festa edo gure errietan antziñatik oi diran danzak plazan ikustera joan bear zuela, eta onetarako Josefa bere kidekoa bezela zerbait apaindu zan. Plazara joan ta laster onen laguna danzan sartu edo asi zan. Orduan bere perilla ikusita, bere konzienzian arantza gogor bat sentitu zuen, eta Jaunaren aurrean lotsaturik, lasterka

etxera itzuli, eta bere Jabe maiteari utsaldi onen barkazio eske orazioan jarri zitzaion.

Beñ eta berriz begiratu, eta Jainkoak begietako argi edo bista kendu zion. Josefak ori ondo ezagutu, eta Jaunaren gaztigua zala ikusi zuen, eta orrekiñ sekulan zezen eta festarik ez ikusteko asmo sendo betiko bat egiñ, eta osoro bete zuen.

Garai artan donzellak burutsean edo mantelin gabe Elizara joan oi ziran: eta nola besteak pestara, eta Josefa beti Elizara bitarte guzian Jauna adoratzera joaten baitzan, eta lotsatzen zala ezagutzen baizuten, Jaunari esan zion: Ai Jauna! baldin agirian etortzeko usadio au kentzen balitz, lotsarik gabe eta pozikago Sakramentu orretan zuri agur onak egitera etorriko nintzake. Orra non urreño igandean guziak Elizara mantillarekin joateko, Obispoaren agindea etorri zan. Aurra bazan ere, Elizara askotan, eta etxeko begiramentu gabe joateko mantilla ezkutuan eraman, eta elizatarian burua estaltzen zuen.

Oraziotik Purgatorioko anima santuen jaiera andi bat atera zuen, eta bere penitentzia eta obra onakin laguntzen zien. Egun batez ur bedekatzuz txarrotxo bat bete eta buru-ezurren lekura edo osariora joan, eta ur bedekatua aiei bota, eta luzaro ori egiñ, eta etxerakoan, Jaunak ala naita, buruezur oso bat gonari itsatsi zitzaion. Bota nai, eta ezin zuen: orduan etxera eraman, eta bere burukotzat artu, eta Erljioan sartu zaneraño beti iduki zuen. Onek lurreko etsipena, eta Purgatorioko animen jaiera aurrera geitu ziozkan.



SEIGARREN BURUA

NOLA JOSTEN IKASI, ETA KASTIDADEA EDO GARBITASUNA GALBIDEETATIK GORDE ZUEN.

Amaika urtekoa zala bere guraso pobreak josten ikastera bialdu zuten; eta nola gauz askotarako argi eta egokia zan; eta txit gogotik ikasi nai zuen, amabi urteetarako era guzietako josteak txit ederki ikasi zituen. Bere esku, modestia eta grazia onagatik, etxe askotan josteko nai zuten. Basarrietatik ere billatzen zuten, eta batera eta bestera deitzen zuten. Bere alogera gurasoen laguntzarako justuro irabazteko, bearra galanki, gogotik eta biziro egin oi zuen. Jainkoak guzian laguntzen zion, eta nola bera añ egokia zan, guzia eskuetara zuzen zetorkion. Bearrean Jaunaren aurean jarduten zan, edo bere Jabeari beti begiratzen ziola: bere asnase guzietan amorezko grazia, eta gozotasua andian Jaunaren borondatea guziz argiro eta zuzen billatzen zuen.

Bearrean onela eguna igarota, gau guzia len bezela eramaten zuen: esan dan lo-kuluska egin, eta Jesus amorezko eta dolorezko maitearen ejenplo eta Pasioko pausoetan sartu, eta bere biotzeko atsegiñetan sartzen zan. Orratarako kanpoko bakardadea lekurik onena bezela, billatzen zuen: sagasti edo soroetara segurutasun andiaz bere Jabearen billan irten oi zan. Azote eta zilizioaz gañera oñ-utsetan asun artean oñak erretzen zituen, eta gorputz guzia tormentaturik, bere Esposo jainkozkoa ikusi, eta iñoiz narru gorrian guzia burutik oñetara erre, eta oñak samiñezko tormentu gogorra artu zuen.

Goiz batean bearrera zijoala gure Kolejioan otoitzaldi labur bat egi-teko ustean sartu zan. Jesus jainkozkoa Sakramentuan agertuta egon bear zuen eguna zan. An lurreko gauzaz aztu, eta Jaunak guzia beregan artu, eta jangabe baztertxo batean arratseraño egon zan. Zeruko janari jainkozko, edo Sakramentuaren erregalo asko eta andiak mai soberano artan animak artu ezkeru, gorputzak ezeren bearririk etzuen.

Josefaren garbitasuna gordetzeko Jaunak bere esku eta indarra eman zion. Amabi urtekoa zala gizon galdu bat deabruak tentatu zuen: eta nola Josefa grazi oneko eta ederra zan, eta bere modestia birjindarrak are ederrago eta egokiago egiten zuen, eta pobre eta bearrekoa zala ikasita, gaitzera errazago ekarriko zuela, sinistu zuen. Aren gelan, bada, gizona uste-gabeko lapurraren gisa ixilka sartu zan: atea barrendik itxi, eta Josefa

galdu nai izan zuen. Baña donzella garbia aserre santu baten arma edo indarrak artu, eta añ eta onen matralleko gogorrak eman ziozkan, non lurrera gizona zoraturik bezela bota zuen, eta an ostikoka eta kolpeka arritu zuen: eta ditxa anditzat berak itxi zuen atea, lasterka idiki, eta azotaturik iges egin zuen.

Beste beñ Josefa bere bearrean ari zala, mutill gaizto batek onen arpegiari berea arrimatzeraz egin zion; baña besoko bere indar guziaz, eta are geiago zerutik etorri zitzaionaz lotsagabeari belarrondoko bat aire galantarekin eman zion, eta ondo miñ zuela, aienatu zan.

O donzella garbiaren miragarrizko ejenploa! O Jaunaren graziako balentia! Onela bere karidadearen Zeruko indarra beste beñ erakutsi zuen. Gizon bik, Josefaren atarian biziro aserretu, eta armaz alkar ill nai zuten. Josefa amorezko su santuaz armatu, eta gizonik portitzena bazan bezela, gizon bien erdian sartu, eta perillik estuenean zegoan gizasemea besotik artu, eta aire ederrean bere etxean sartu zuen, eta portu segurua, bizia eta pakea eman ziozkan.



ZAZPIGARREN BURUA

AMABI URTEETATIK AURRERAKO JOSEFAREN BIZIERA EGURBIDE-KO BASARRIAN ETA AN IGAROTAKO TENTALDIAK.

Bere guraso beartsuen laguntzan Jainkoa serbitzeko, ejemplo ederretan bere alegin zintzoak txit egokiro erakusten zituen. Baserrietako jostelanetan, ikusi dan bezela, zebillen. Baña Jainkoak bere Josefa maitea beregana obeto ekartzeko, eta bakartasun obean bizitzeko, lenengo Egurbideko etxea Josefari prestatu zion. Ango Jabe prestuak Martin Villarreal, eta Maria Cruz Salaberria ziran. Onek bere ditxa andirako donzella Josefa deitu, edo eraman zuen, eta partidu estimagarriak egin ziozkan. Gela bakar bat bere ejerzizio santuetarako eman zion, eta egun oro meza enzun, eta Komunio santuaren usuera Konfesoreak esaten zion bezela beste jaierakin gorde zezala, eta bere joslanaren alogera gurasoentzat izango zala: ala etxe artan denbora luzean bizitu zan, bere Jainkoa biotz guziaz, eta gauza guzietan billatzen zuela.

Baña Aingerueri pakezko biziera au an egiten zuen bitartean infernuak gerra bizia egin nai zion; eta bere orazio eta komunioetatik urrutiratu nai zuen. Komunioko egun batean lo gutxi egiñ, eta bere Jabe maitea biotzean artzeko antsiakin txit goiz Elizarako abiatu zan; illargi zan, eta orra non bidean bere aurrean zezen-talde aundi bat, eta gizon zakar batzuek deadarrez, eta zezenak orroaz, ikusi zituen. Lenengo artan laborriak artu zuen Josefa; baña bere Jaungoikoagana biurtu, eta beldurgabe erriraño aiek aurrean zituela joan, eta mamu ikaragarri guziak an infernura ondatu ziran.

Alde onetatik deabrua burlaturik geratu zan, baña berriz eta beste alde perilltsuagotik bere armakin jokatu nai zuen. Josefari burura milla gezur eta beldur ekarri ziozkan, eta infernuko engañuak persekuzio latza jaso zioten. Oiek ziran, Jainkoaren bidean ongi etzebillela, eta gazte zoro burugabea bezela biziera errukarrian sartu zala. Kristau on askoren gisa obeko zuela perilletatik libratu, eta ezkondata Jainkoa seguruago serbitu. Ikusten zituela asko, eta Josefarentzat urlia gazte ona, egokia, izango zara. Onelako burutazio asko bere buruan bakarrik sartu, eta bizi erantsi, eta ezin kendu, eta gerra bizia bere barrenen egiten zioten.

Baña arako bero Esposo Jaungoikoari agindu zion kastidadearen promesaz oroitu zan puntuan, eta garbitasuna galdu gabe gauza oriek eziñ izango zirala, donzella garbiak, bereala Jaungoikoagana biurtu, eta tentazio orien gorroto betikoa artu zuen. Gizon gazte batek sobra edo geiegi Josefari begirutzen zion. Au lenengoan oartzen etzan; baña betiko begiratu edo ikusi-naiak beldur santua eman zion, deabruaren lazoren bat an ezkututzen ote zan. Andik aurrera txit arretaz zebillen eta alegin guziaz argandik iges egiten zuen. Gizona, au ikusita, maliziaz bitarteko edo andre txar batez baliatu zan. Onek gaitzerako mandatu, edo infernuko beargaia bizi egin zuen, eta bera ikusteko, eta biak egoteko gizonaren griña ta zalea agertu zion. Baña atso triste ori gura donzellak, ordu gaiztoan, merezi zuen bezela, bere gelatik bota zuen. Orazioan bareala jarri zan, eta Jaunari biotz guzitik bere garbitasun osoa gordetzeko indarra eskatu zion.

Orregatik ere etsai gaiztoak, mandatu orrez baliatu, eta alde askotatik Josefa tentatzen zuen. Baña, au bere orazio eta penitenziakin gordetzen zan, eta Jainkoari erregutuaz, aren grazia eta indarra arkitu zuen, eta tentazioak pakean utzi doten. Orrekin bere argaltasuna egunoro obeto ikusi, eta aurrera perill guzietatik bere burua libratzen ikasi zuen: eta ez len eta ez gero, pensamentu oiek ezpada, beste tentañirik bere gorputz garbian beñere senti etzuen.



ZORTZIGARREN BURUA

NOLA GERO TXURRUKA-ETXEAN BIZI ZALA, ORAZIO EDO OTOITZA UTZI ZEZAN, DEABRUAK GERRA BIZIAGOA EGIN ZION.

Egurbide-ko ongilliarrekin Josefa txit ondo arkitzen zan; baña aien pena andiarekin bazan ere, Jainkoak aldatu nai zuen. Gurasoetara biurtu, eta laster Jainkozko eta urteetan eldutako donzella, Txurruka-etxe anziñakoan bakarrik, zegoen batek, zeren onen Jabe prestuak kanpoan ziran, Josefa bere laguntzat artu nai zuen; eta au bere Konfessorearen konsejuz argana jua zan. Onekin biziera berri santuago bat egiten asi zan: biak batean jan eta beren joslanak egiñ, eta Aingeruak bezela batak bestea Jaunaren amorean irazaki, eta bakoitza bere gelara orazioan baztertzen ziran; ordu asko egunaz, eta gaurik geienean, Josefa Zeruko gauzen gogorazioan bere Esposo Jainkozkoarekin egon oi zan.

Gure Josefak amabost urte zituen eta orduan Jainkoak osoro bereganon sartu zuen. Emen lenengo sentiduak galdu, eta gozotoro Jainkoagan kordegabetua arkitu zan. Orazioan beregandik irten; edo Esposo Jainkozkoarekin amorez urtu, eta onek laztan estuakin beregan sartu, eta kordegabetze atsegiñetan illa bezela, sentiera gabe uzten zuen. Baña Josefaren Zeruko erregalo oek etsaiak ikusi, eta amorru bizi bat artu, eta orazioa galerazitzeko infernuko alegiñaz baliatu zan. Otoitzean jartzen zanean iñon ziran arazoak eta iskanbilla izugarri eta etxe-ikarak ateratzen zituen, beñ zur edo abeak, gero lurra edo etxea bera ondatzen baziran bezela. Baña nola Josefa firme baizegoen, eta beldur gabe, Jesus amoretsuak alaitu, bizkortu eta alakorik ezipazan bezela, orazioan beregan sartzan zan.

Deabruak ikusirik alde onetatik ezer ateratzen etzuela, Jainkoak esku edo lizenzia emanik, Josefa bera gorputzean tormentatzeari eman zion. Gau batean bere beargai santuak egin, eta bere oiera lotara zijoala, deabruzko atzapar izugarri batek eztarria itotzeko gisan estutu, eta abe batek airean ipiñi zuen. Luzaro itotzeko zorian, eta bere ezur guziak txikitzen bazizkioten bezela illtzeko oñazeakin an iduki zuen. Jainkoari bere indarra eskatzen zion, eta onek agindu, eta zepo artatik libratu zanean, guzia puskatu eta desegiñik arkitu zan, eta arrastaka eta nekez bere oiean etzan zan.

Jaunaren izenean gogoz eta pozik tormentu ori igaro, eta bere eskuetik bezela erregalatu zuen. Zeruko argi ederrez bere gela beterik ikusi zuen, eta Jesus Jainkozkoa aurtxo gozoaren gisan bere buruaren aldean eta gelaren gañetik konta al baño geiago perla txit ederrak Jesusen burura eta Josefaren inguru guztira etorri ziran. Jesus gozo maiteak Josefaren biotza Zeruko gozotasun eta amorez bete zuen, eta erregalo onekin osoro sendatuta bertan arkitu zan. Zeruko Maisu bakarrak Josefari onetan erakutsi zion, aren amorez bear bezela eramaten diran neke-trabajuak perla guziz preziatuak dirala, eta Jesus onari bere penetan jarraitzean, geron ditxa eta betiko koroa arkitzen dirala.



BEDERATZIGARREN BURUA

JOSEFAREN NAIGABEAK ETA ASTEASURAKO BIDAJEA

Jesus amoretsuaren mesedeen ondoren Josefaren anima barrungo pena illun triste batzuetan sartu zan. Bidea utseginta galdua dabillen baten gisa, txit beldur zan: bere burua, edo konzienzia, zan bezela, edo nai bezela eziñ ikusi, eta ezagutu zuen; kezka onek sosegurik uzten etzion: eta gutxi edo asko bere bizi guzian aurrera au izan zuen. Gogoratzen zitzaion: Nere barrena nik ondo ezagutzen ez tet. Nere konzienzia txit esamiñatu, eta kontuz begiratu, eta arkitzen ditudan utsegiñak baño askoz geiago, eta andi edo pisuagoak nik egiten ditut. Ai nola ote nago! Nere Jaun maitea, zer da au? Nik zer egin nezake?

Konfesoari txit estu kontu ematen zioten. onek, oi dana, alegiñaz alaitzen zuan; baño bere kezka eta naigabera biurtzen zan. Negarrez artu eta desegin, eta Jainkoari bere argi andi bat, bere utsegiteak ezagutzeko, eskatzen zion. Baña laster bere penetara biurtzen zan. Alde guzietatik konsueloko atek itxiak, eta nora biurtu, edo zerekiñ, etzekien. Etsipen triste oien eta bere biotzeko estualdi samiñen artean gogoak eman zion, edo Jainkoak gogoratu zion, pena aiek zerbait arintzeko, Andre jainkoti, edo sona andiko Jaunaren adiskide bat billatzea, aren bitartez zeruko bear zuen argitasun geia, eta bere animaren ezagüera osoa, eta egiazko sosegu eta pakea arkitzeko.

Ditxazko Andre au Ama Maria Urdinaran, Aldariaga-ra ezkondua, Asteasuko erri noblean adiñ andikoa, eta sona andiagokoa, luzaro oatuta zetzana zan, eta bere biziera santu, eta ejenploakin Zeruko espirituaz beterik, mirarizko Jainkoaren gauza andiak egiñ eta esan zituena. Onen espiritu miragarria, Donostiatik Asteasura etorri, eta zuzendu oi zuen Aita Migel Elizalde, Jesuita, eta esan al baño jakintsuago zan Teologo sonatuak, eta bere liburuagatik Maisu guzien artean ondo ezagunak. Ama Maria onegana joateko asmo eta gogo txit biziak gure Josefa gazteak artu zituen. Jaungoikoari ditxa au mesede anditzat bere erregualdi luzeetan eskatu zion. Beñ eta berriz zale ori koitu nai izan zuen; baño asko balio zuena asko kostatzea Jainkoak nai izan zuen. Orañ esango dedan bezela, geroenean bere animaren onerako iritxi zuen.

Bere Konfesoaren baiezo gabe Josefak ezer ere egin nai etzuen, eta hura zerbait atzera zegoen. Iñauteriko asteartean, berrogei orduetako induljenziak irabazteko, Josefa jaiera andiaz Kolejoan komulgatu zan Soseguz Jesus maiteari eskerrak ematen zegoala, iñoiz ere baño Ama Maria ikusteko zale biziagoak sentitu zituen. Zer igarotzen zitzaion konfesoari esanta, onek ikusaldi edo bisit ori egiteko baimena eman zion. Bere aitari, arren lagun ziozala, erregutu zion, eta Jainkoak ala naita, bederatziak ezkerro biak bidean jarri ziren, eta egun artan mirari asko gertatu ziran.

Lenengoa: ez Aitak eta ez alabak Asteasurako biderik zekiten; mendi goitu, aldapagor elurrez beteak neguaren biotzean, eta egun laburrean igaro bear zituzten. Iturri-otzera igotzen asi ziran; baño Josefa amorezko egoakin beti aurrera. Aita gizon txik sendoa omen zan, baño alabaren aire galantari ezin jarraitu zion. Baña Josefa, Ama Birjiña Santa Isabel ikustera bezela, ez geldi, ezpada txit ariñ, bere adiskidearen billan zijoan. Iturriotz-gaña igaro, eta kanpo zabal batean bi edo iru bide ikusi, eta txit kezka arkitu zan, eta bidea utsegiteko beldurrez zer egin etzekienean.

Zalantza onetan zijoala, orra non Jainkoaren onginaik lagundu zion. Andre bat bere aurtxo besoetan zuela, an agertu, eta aurrera zetorkion. Ori ikusita Josefa txit poztu zan, bere bide segurua jakiteko. Alde-ratu zanean, ondo begiratu, eta andrearen arpegia guziz modesta eta ederra, eta bere besoetako seme zoragarria edertasuna bera zala, ikusi zuen. Amaren grazi ona ikusi, eta bere dudan esan zion: *Andretxoa, Asteasura ondo noa?* Eranzun zion: *Bai ondo, eta zuzen zoaz; baño eziñ orrela joango ziiñake, baldin Jainkoak bidea erakusten ezpalizu.* Eskerrikazko erran ta, bere bidea artu zuen bereala. Aita aldean zuen begiratu, eta orra non ez batera eta ez bestera begiratuta Andre bidezkorik iñon ere ikusi etzuen, eta punto artan eta kanpo zabal artan bereala desagertu zan. Ama Birjiña bere Seme maitearekin bideerakusle izan zan.

Oien mesede andiaz txik ariñ Josefa eta Aita aldapa bera jatxi ziran, eta Ama Mariaren etxea billatu, eta erraz topatu zuten. Txit argi zala etxe artara iritxi, eta mirari andiaz bat batetan oso illundu zuen. Ateetan deitu, eta Josefak esan zuen nola pobretxo arrotz bat, oaturik an zegoanarekin egon bear zuena zan.

Onek ordu onean sar zedilla, eranzun zion. Gaxoaren aurrera zanean Josefa, ark ziiñatu eta esan zion: *Josefa, zu zatoz, eta nigana?* Batak bestea iñoiz ere ikusi etzuten baño ezagutzen bazuten bezela beren izenaz ongi-etorri eta diosala alkarri egiñ zioten, San Pablo lenengo eremutar eta



San Antonio andiak bezela: eta Santa Isabel-ek Ama Birjiñarekin egin zuen bezela.

Josefak, bere Ama Mariarekin geratu zanean bere etorreraren berri eta zertara, esan zien. Zugana nator, Zerurako biderik seguruenak ikasi, eta artzekozaleaz. Gure Jainkoa obeto, edo alik ongien serbitzeko ikasbideak zugandik artu nai ditut. Karidade egin bear didazu, zuk bezela, nik ere gure Jauna egiaz billatzeko eta guzian berari atsegiñ egiteko bear dedan argia emateaz; bada nere barrengo ezjakiñ eta itxutasunaz txit illun eta estu arkitzen naiz, zeren nere utsegiñ andiak eziñ ikusi, edo ezagutu ditudan. Jainkoari diozun amoreagatik, arren! guziak banaka ager zaizkidatzu, eta beraren graziarekin ni osoro emendatzeko lagun zadazu.

Biotzeko negar, eta suspirio samiñakin bere barrengo naigabea esaten zegokion bitartean, Ama Mariak farra atsegiñ batekin errukiz begiratzeko zion, zeren Josefaren biotza amore jainkozkoaz erre eta eriturik zekusan. Ala Ama maitearen beargaiak egiñ, eta bizi alaitu, eta poztu zuen. Esan zion, etorkizun berri onak emateko: Jainkoa asko serbitzeko bear ziran gauzetan patu guziz onekoa izango zala, eta aren amorez asko eraman edo sufritzeko santuen suerte ona izango zuela, eta bere Inkisizio puska paltako etzitzaiola. Josefa, esker on andiak emanta, txit alaitua Jaunaren mesedez etxera biurtu zan, eta lengo obra on guzietan bere lagun maitearekin txit gogoz asi zan.

Konfesoreak ezagutu zuen, barrungo gurutze oiek eta penitenziak Josefa argaldu zutela: eta bere neurri onean sartu zuen. Bere azotaldi eta zilizio jakin edo aginduak baizik egiten etzuen, eta bere berotasun edo eresien kontra bazan ere, obedienciaren sakrifizio askoz ohea Jainkoari egiten zion. Konfesoreak ezagutu zuen, limosna eskatzeko Josefak lotsa modu bat zedukala, eta Sazerdote eta Jaunen andietxeetan zaku batekin bearrekoentzat limosna eskatzea agindu zion: ala egiñ ere zuen agindu zion denbora guzian. Gure Aita Erretoreak ogi asko ematen zion, etxe jakin batzuetan zabaltzeko, eta ogi-bearrik etzuten batzuetara asko eramatea, berariaz agintzen zion. Aita Erretoreari iñoiz esan zion: *Asko eramatea agintzen didan etxe orietan limosna premia gutxiago da, gutxi eramatea esaten didanetan bañ.* Baña gaztigu ori, bekaitz edo inbidia bazan bezela, Konfesoreak aserre gisa artzen zuen, Josefari erakusteko obediencia itsu santuaz bere burua eta iritzia gauza guzietan ukatzen; eta zer, edo zergatik, agintzen zan esamiñatu bear etzala.

Ama Santa Teresa eta Avila-ko Mari Diaz Jainkoaren serbitzari andiak beren Konfessore Aita Baltasar Alvarez, zeruko argiz eta Jainkoaren espirituaz beteak, beren nai guziak eta iritzia osoro ukatzera, eta sus-

traikit ebakitzera oitu, eta txik egiñ zituen. Estuasun andi batean Ama Santa Teresak gure Aita Baltasarri eskribatu zion, eta duda artatik libratzeko, arren! bereala eranzun ziozala. Bereala eranzun zion Aitak; baña kartaren gañean agindu zion amabost egun aietan karta idiki etzezala. Edozeñek dakus zer tormentu garratza zan; baña Santak kunplitu zuen ori, Jainkoaren esana bezela.

Maria Diaz sonatuari konfesatzera zetorrela agindu, e.a amaiketa-riño iduki, eta aserre bazan bezela, egun batean eta bestean, amabost eta ogei egunean ala idukitzen zuen. Onela Josefa Aita konfesoreak progartzeko zion: eta azkenean konfesio gabe komulgatzera bialtzen zuen. Guztian Mari Diaz bezela, Josefa oitu eta obeditzalle beti izan zan. Anima oiek konfesatzeko eta komulgatzeko, o zer gose eta egarria zuten! Oriñ espirituak zer zeruko ansiak zituzten! Baña obediencia itsuaren kate indartsuen, o zer indar paregabea! Gauzarik santuenetan, eta oriek Konfesoreak ukatu eta obeditzeko dago Jesus obeditzallearen Gurutzeko fruturik santuen eta seguruen. Salbatu nai dezun kristaua, obediencian, eta zere buru eta naia ukatzean, dago zerurako zure bidea.



AMARGARREN BURUA

NOLA GAIXOTEGI EDO HOSPITALEAN BIZI ZALA, JAUNGOIKOAREN DA LAGUN URKOENGANAKO AMOREAN AURRERATU ZAN.

Zeruko bide seguru edo obediencia egiazkoan beste bertuteak arkitzen eta gordetzen dira: orietan Josefa biziro aurreratu zan. Bost urtean bere lagun san tarekin Aingeruen pakeazko biziera egin zuen: denbora orretan Asteasuko Ama Maria ikusi, eta onek esan ziona egiñ, eta Zeruko argi, egun oro andiagoak artzen zituen. Jainkoaren ontasuna argi orietan ezagutu, eta Josefaren biotza Serafiñen amoreaz bezela erretzen zan, eta bere Jabe maitetuagatik bere alegiñ guziak egiñ nai zituen. Karidadea da Jainkoa, eta Josefari, bere karidadea Kristoren pobreetan erakusteko gogo bizi batek eman zion. Konfesoreari kontu eman zion, nola bearrekoak Ospitale santuan serbitzeko zale andiak barrundatzen zituen. Ontzat onek gogo ori eman, eta bear ziran bideak, Josefa Etxe santuan sartzeko, berak artu zituen.

Milla esker-erakutsi orregatik Josefak Jaunari agertu ziozkan. Jainkozko malla goratu bat bezela Ospitaleko izatea artu zuen: au zan Kristoren pobreak bera bezela serbitzea. Etxe santuan sartu, eta era ederrean, ogei urtekoa zala, gauza guziak ipiñi zituen. Nola ezertako egoki eta berrizkoa zan, guzia ondo eskuetara zetorkion. Bearreko eta orietan Jesus onari begiratu, eta txit pozik eta biziro laguntzen zien: txukuna zan, eta guziz garbiri serbitzen zituen. Bear ziran lan edo egitekorik txatar eta umillenenak beargairik estimatuenak bezela txit gogotik artu zituen: eta bakarrik orietarako jaioa zirudien.

Ori baño geiago zan aren espiritu eta gogo santu garbia. Jainkoaren izenean karidadezko obra on oriek eginta, bere gelan sartzen zan; an bere joslanak egiten eta jainkozko gauzetan pensatzen jarduten zan. Onetan, zion Konfesoreak, Jainkoak argi txit andiak oi ziozkan eta aren Ontasun ondogabea ezagutu, eta amore irazaki eragille batean berotzen zan, eta Jaungoikoagan ezipazan, beste gauzatan pake edo sosegurik arkitu eziñ zuen. Anima santa onen suspirio eta ansia guziak gau ta egun bere Jaun maitarekin egotea ziran. Bearrekoen karidadezko kontu, eta bere penitentziaz ostean, egun oro zortzi eta bederatzi ordu Zeruko gomunta edo kontenplazio gozoan pozik igarotzen zituen.

Onela Josefaren biotz guzia Jainko guziz amoretsuak beregana, eta txit barrena, tiratzen zuen, eta aren amorezko gozo onetan bai, eta beste-tan atsedenek etzuen. Nola amaren bular gozoa artzen dagoen aurtxoak bere alegiñaz itsatsi eta utzi nai ez-tuen, eta aren besoetatik atera nai badute, negarrari eta inziari edo suspirioari ematen dion, eta gorputza ezipada ere, biotz edo gogoa beti an daukan, ori bera Jainkoaren amorezko bular gozo edo Zeruko erregaloakin gure Josefa-ri gertatzen zitzaion. Urtu eta desegiten zan Jainkoaren ontasunaganako amorean, eta beste ansiarik, ill arteraño ori arkitu eta idukitzea baño, nai etzuen.

Zeruko gauzen gogorazioan beti ase zegoelarik, beti gose eta egarri zan; bere barrenen beti zedukan jabe amoretua beti geiago amatu nai zuen.

Ai ene! esaten zuen, zertarako jaio nitzan, ezipada Jainkoa amatzeko? Eta zenbat denbora amorezko sutegi onetan erretzea nik nai dedala, eta orregatik erretzen ez naizela? Jainkoaren mesedezko doaia ori dala, bada-ki; baño Jainko Emalle ugariari eskatzen dioten anima jutuak iristen dutela ere, badakit. Ori nik ez iristea nere kulpa seguru ere izango da, eta nere eskari eta negarrak orrek atzeratzen ditu. Nik ori nola segurutu baneki, nere biziaren kostura ere egingo nuke; baño eziñ det. Eta orrela, nere Jainko guziz ona ez maite izateko, nere bizia zertarako da? Alperrik nago: fruturik ematen ez-tuen arbola ebaki obe da. Jainkoaren amore gabe bizitzea baño iltzea obe da.

Burutazio illun oien artean urari bere burua emateko tentazio gogor batek eman zion. Konsuelo gabeko negar samiñen artean bere Konfesorea billatu, eta zan bezela guzia kontatu zion. Onen konseja santuak asi ziran bezela Jainkoak Josefari argia, etsaiaren lazo izugarria ezagutzeko, eman zion: bere argaltasun eta ezereza ezagutu zuen; baita ere obediencia-ziaren graziazko indarra, eta nola Konfesoreari guziaren kontu eman bear zion. Josefak añ biotzetik opa zuen amore jainkozkoa beregan sentitzen asi zan, eta bere sentibideak galdu, eta gau osoak gozotoro kordegabeturik igaro, eta denbora gutxi zeritzan. Egun batez goiz komulgatu, eta bere baztertxoan jarri, eta arratsaldeko iruretaraño Jainkoagan gozotoro kordeagaldurik belauniko egon zan. Nekez Konfesoreak beregana biurrerazo, eta amorez guzia desegiñik, illa bezela arkitu zan.

Baña ez Elizan, edo orazioan bakarrik, baita ere joslanean guzia beregandik irten, edo bere Jainkozko amorean sartu, eta kordegabetze orietan sentieragabe ikusten zan: josten ziardula, bera eserita, eta almoa-datxoa eta jostorratza eskuan zituela, ill-otza bazegoan bezela argitu oi zan.



AMAIKAGARREN BURUA

DENBORALDI ARTAN ETSIAIAK EMAN ZIOZKAN NEKE-PENA SAMIÑAK ETA JAUNA-REN MESEDEAK.

Denbora onetan Jaungoikoaren beldur eta amore santuan, obediencia eta beste bertuteetan obeto segurutzeko, tentazio eta naigabe gogorak igaro zituen: oiek guziz barrungoak batzuek, eta kanporonzkoak besteak izan ziran. Barrungoak guziz estu artu zuten. Bere adimentua oso illundu, eta burutazio guziz triste eta agoniako ansiak bezela alde gutitik artzen zuten, eta Jaungoikoarekin ondo etzegoela alde aldean sinisterazotzen zioten, eta infernua idikia zedukala, bera artzeko.

Komunio sagradutik ikara oiekin deabruak atzeratu nai zukean, eta bere barrenen esaten ziola, Jaunaren ira eta aserrea aren kontra zegoala, eta beldur estu onekin Elizatik igeska bezela joaten zan: baña Konfesorari esanta, beti komulgatzen zan. Ori eginta, deabruak forma sagradua aotik botatzeraño tentatzen zuen. Konfesatzeko prestatzen zegoen batean, burutik jauzia bezela, negar ta deadar katea barrena zijoa esaten zuela: *Ai ene ditxagabea! Ni Jainkoa serbitzeko ez naiz!* Baña Konfesoreak erakarri, eta onen errieta aldia umilltasun andiaz artu, eta sosegatzen zan. Konfesorea billatzen zuelako etsaia amorratzen zan, eta aren kontra Josefa lazki tentatzen zuen; baña onek guzia umillkiro konfesatu, eta Jaunaren graziarekin guzian etsaia azpiratzen zuen.

Deabruaren arte eta traza oiek kanporonz ere agertzen ziran. Konfesatzera Josefa joanta, ikusten ez, baña sentitzen zuen esku eda atzapar batek eztarria estuta eta itzegitea galerazten ziola, eta ur bedeikatua eman, eta Konfesoreak erlikia santuakin agindu, eta libre eta sosegatu geratzen zan. Komunioak, eta orazio añ luzea galerazi nai ziozkan bere engañuakin; baña Josefak Konfesoraren esana beti egiten zuen, eta obediencia-aren armakin deabrua eskuratzen zuen. Beste aldetik estutzen zuen, bere guraso bearrekoai bizitzen laguntzeko, orazioa utzi, eta josten edo lanean jardutea bearrago zuela bururatuaz. Baña traza oriek ere desegiten, mirari askorekin Jainkoak lagundu, eta erakutsi zion.

Bere orazio eta jardun-bide santuen ondoren irun zuen ari puska euntegian ondo ego, eta ariari zegokion baño miesa-kana geiago arkitu zuen. Bere lanean atera zituen kuarto batzuek kutxatxo batean zeuzkan, eta ori idikitza joan, eta ogeita amar dukat arkitu zituen. Beste beñ

kutxatxo itxia zeukala, idiki eta diru puska arkitu zuen, eta munduko eskuk limosna ori eziñ emango zuen. Onela Jainkoaren esku altsuak beraren konfianza Josefari erakutsi zien, eta onen amorezko jardun-bideak ezer kentzen etzutela. Jainkoa lenena biotz onaz billatzen duenari, aren zuzentasun edo zeruko erreinua beste ondasunakin darraizka.

Jainkoaren beste argi andi eta ikasbide ederrak onen gañean izan zituen. Josteko beargai andi batean espiritu deboziozkoan jarri, eta lenengo puntadetan Jainkoagan kordegabetua geratu zan: luzaro Jainkoak beregan iduki, eta biurtu zanean, Jainkoak edo Aingeruak lan guzia txit ederki bukatu ikusi, eta Jainkoa alabatzeko gaia izan zuen.



AMABIGARREN BURUA

BERE IRAUPEN EDER BIOTZ AUNDIKOA.

Bere barrengo naigabe eta tentazioaz ostein, agirian ere Josefak deabruaren persekuzio eta tratu gaizto asko eraman zituen. Banaka oiek konstatzea, gauza luzea litzake; baña Josefak Jaunaren graziarekin deabruaren traza izugarri eta golpeen beldurrik etzuen, eta bere jardun-bide santuetan firme egon oi zan.

AMAIRUGARREN BURUA

AGERTZEN DIZKA JAUNAK LAGUN URKOEN PREMIAK ANIMAKOAK ETA OIEK KENZEN SAIATZEN DA.

Bere Jabe maitearen amore jainkozkoak Josefa iziotzen zuben eta ortik animen salbazioaren sugar zelo andiz beteak artzen zituen gure Jaingoikoa amatu eta serbitu bearrean aren Ontasun ondogabea ofenditurik ikusteak biotza erdiratzen zion. Bere orazioan anima asko Jaunaren desgrazian ikusten zituen, eta eziñ-esan-alako tormentu eta penak igarotzen zituen. Negar ta suspirio, penitenzi eta mortifikazio guziak orazioan desegitit, Jainkoari ofrendatzen ziozkan. Bere konfesoari penaz beterik argi seguru orien kontu ematen zion. Baña au txit begiratua zan; eta anima galduen erremedioa biotz guzitik opa bazuen ere, Josefaren argi andi, eta Jainkoaren gaztigu añ estuai sinistra eta ezer egitera ezin inolatan animatu zan.

Jainkoak bere serbitzaria orazioan egun-oro eta geiago estutzen zuen, eta pekatari galdu orien edo beraen ofensa itsusi eta sakrilejio izugarrien erremedioa Konfesoareaz baliatu, eta laster billa zezala. Errian ziran lau pekatari Jainkoak izendaturik Josefari erakusten ziozkanak, egun-oro aldarera zijoazen Ministro bi, ezkondu bat, eta beste ezkongai bat ziran. Eliz-gizon bata aren lagun andre tristeak Josefari esan zion bezela, sei urtean ezkutuan bazan ere, mundu itsuak ontzat zedukala, deabruaren mendeko deshonesto bat izan zan. Bestea amazapi urtean konfesatu gabe infernuko lokatzean sarturik zegoen, eta orrela ezkondua eta bestea. Beste askoren desdixak bezela, oien egoera gaiztoa Jainkoak Josefari orazioan agertu zion, eta zeñ aserre aien kontra zegoen.

Egia da, Konfesoarea lenengoagatik Josefak esan zionean, atzeratxo zegoela, zeren alakorik zala uste etzuen, eta iritzi onean urlia zedukan; baña Jainkoaren mandatuak estutu, eta onen gaztigua eman zion. Urliak guztia ukatu zion; eta Josefari esan zion. Onek eranzun zion: larga bekio: laster Jainkoak guzia konfesatzera erakarriko du. Ala ikusi zan. Konfesio oso andi bat damuz beterik egin eta biziera berria artu zuen. Bigarren Apaiza obeto etzegoen, eta ala Jainkoak agertu zuen. Orduan Josefak naigabe esan-al baño andiangoa artu zuen, bada Jainkoaren ira eta aserre gogorra bere Ministro galduaren gañera erortzeko zorian Jaunak erakutsi zion. Baña Josefak, orazioan negarrez eta suspirioz jarri, eta Santo Kris-



toa besoetan artu, eta esan zion: Eztizut utziko, Jauna; barkatu bear diozu: arren! Jauna, urrikaltasun eta barkazioa. Konfianza osoarekin oraziotik jaiki eta konfesoareari etorriko zala segurutu zion, eta agiazko konfesio andi batekin Jaungoikoagana anima galdu au ere biurtu zan.

Gizon ezkondua bere emaztea etzan beste batekin limuritua eta itsutua zegoen. Josefak Jaunari erregutu, eta aren izenean konfesoareari esan, eta gizonak zan guzia ukatu zion. Bego, Jauna, Josefak esan zion: konfeszera bera laster etorriko da. Ala ikusi zan. Urrengo gauerdian emakume gaiztoaren etxera zijoala, arkabuz-tiro batek arpegia eta eskuak kiskaldu ziozkan eta mostru izugarri, edo deabru bat, bere aurrean ikusi zuen. Onen igesi, erreta zegoen bezela, lasterka konfesoareagana joan; eta konfesio egiazko batekin bere animako zauriak, gorputzekoak sendagilleak kuratu baño len, sendatu zituen.

Onelako argi edo zeruko gaztigu asko animen salbaziorako Josefari Jainkoak ematen ziozkan. Baña nola iñoren biziera gaiztoa eta pekatuak ala ikustea gauza izugarria dan, eta etsaiaren beldur zan, umilkiro argi orietatik libra zezala, eskatu zion. Ala ere persona bat beñ ustegabe topatu zuen: bere biotzean Jainkoaren argizko gaztigu edo golpe bat sentitu zuen eta bere kulpax txit ezkutatuak, egoera ditzagabea eta deabruaren mendeko bere anima zeukala, esan zion. Arriturik geratu zan: munduarekiko iritzi onean zegoan; lenengoan ukatu nai zukean; baña Jainkoagana beregan biurtu, eta egiazko biziera artzeko guzia zan bezela aitortu zion: konfesatu, eta bere burua Jainkoari osoro emateko eta bakarrik bera serbitzeko, bereala erlijioan sartu zan.

Alde askotara bere lagun urkoen zelo au Josefak erakutsi zuen. Don Franzisko Idiakez, jaun guziz prestua, Balladoliden bere egitekoakgatik zegoela, azkeneko bere gaitzak artu zuen. D.^a Ana Luisa Peñafloidako Kondesa, aren alaba, berri triste onekin Parrokiara, Josefa zegoan baztertxora joan, eta bere Aitaren osasuna Jainkoari eskatzea enkargatu zion. Josefak bere ongille aundien etxeari zenbat zor zion ondo ezagututa, Jaun ark bere bertute siñalatuaren artean egiten zituen limosna ugari eta Jainkoaren gogoerako obra ederrakgatik, bere biotz guzitik bere erregualdia egin zuen.

Andre Kondesak urrengo korreoan onera Aitak eman zuelako albis-tak izan zituen; baña Josefari Jainkoak orazioan illberria ordurako eman zion. Alabari ezer esan gabe, orazioa aurrera aren animagatik eraman zuen; eta orduan D. Franziskoren anima Jainkoak bialdu, eta ikusi zuen, eta esan zion: *Josefa, zu zera nere ama, nere bearrenean laguntzen didazuna*. Jainkoagan kordebageturik geratu zan Josefa, eta Jainkoaren aurrean lotsatu-

rik, zeren berak Jaun orren anima ikuserazi zion, eta esker onak ematera grazi añ ederrean bialdu zion.

D. Jose Ignazio Zuazola, Etxesantu onen jabea, D. Matias, eta D.^a Ana Lasalde, odol guziz onekoen seme bakarra, gaitzak artu zuen, eta illzen jarri zan. Josefak txit asko oriei zor zien. Etxe santu onetan Aita San Ignaziori semearen osasunagatik bederatzizurren bat egitea, Amak txit estu agindu zion. Josefak gogotik ori asi zuen; baña bere biotzean eriak ill bear zuela, gaztigu artu zuen. Bederatzi urrenaren bukaeran, kapilla santuan meza enzuteko zegoela, jendeen atsegin andiarekin gaixoa obeto zegoelako berri onak etorri ziran. Baña Josefa bere barrenean, ill bearra zala, seguru zegoen. Hostia santua konsagratu, eta dei bat argiro aditu zan: *Ill da*, eta ala gertatu zan, eta meza esan orduko illberria etorri zan.

Denbora orretan Josefaren ama Marta illtzeko gaizkitu zan: alaba onak bezela bere urrikaltasun andiarekin lagundu zion, eta bear ziran sendagaietan serbitu zuen. Bearren zuena, aren salbaziogatik orazio asko Jaunari egin ziozkan, Sakramentuak arturik, Jainkoak eraman zuen; eta bere zegozkion elizkizunak egiñ, eta penitenzi eta errege asko, eta meza askoren limosnak bildu, eta amaren animagatik jaiera guziaz atera zituen. Onela, eta txit ederki, Espiritu Santuaren Konsejua eta Tobias santuak bere semeari esan ziona: *bere bizi guzian ama onra zezala*, egin zuen.



AMALAU GARREN BURUA

SANTA CRUZ-KO ERMITAN SERORA GELDITZEN DA, AN SENDATZEN DA MESEDETZEN DU JAUNAK.

Zazpi urte bearreko eta eriak sendatzen Josefak eginta, leku-aldatzea Jainkoak nai zuen. Bere ongille batek konseju eman zion, Santa Cruzko Ermitara aldatu obe zuela: ango serore izatea iritxiko ziola, eta bakar-tasun santu artan bere obra onak ondo egiteko era ederra izango zuela. Bere Konfesoreari kontu eman bear ziola, esan zion, zeren Josefak gauza guzietan Jainkoaren gogoko zana egiteko, Konfesorearena beti egin nai zuen. Onak bide-santu ori ontzat eman zion, eta bereala seroretza iritxi zioten. Ermita errian txit estimatua zan, eta Josefa Kalbarioko estazioak egiten, eta bestela, txit askotan ara joan oi zan: erritik ara begiratzen zuen guztian, gau ta egun, beti ermita-gañean odei guziz argi eder bat ikusi oi zuen. Orduan beti zer ote zalakoan egonagatik, zer zan etzekien. Eskean zebilltzan San Franziskoren ordenako Erljiosio bik bederatzi gautan beti ermita-gañean argi eder irazaki batzuek ikusi zituzten.

Bere ermitara igo zanean, serora txit zar nekatu bat arkitu zuen: gajoak bere limosnak eta bizikaia kenduko ziozkalako pena eta miñ txit andia artu zuen; baña Josefaren grazi onak bereala burutik ori kendu zion: segurutu zion, zeukan guzia, eta zetorrena arenzat izango zala, eta berak al zuen biguntasun eta amore guziaz illarteraño lagunduko ziola: esan ta egiñ: alabarik maiteen eta umillenak bezela Jainkoari bere anima Josefaren besoetan eman arteraño serbitu zuen. Ermitara joan zanean guziz galdua, eta erorteko zorian arkitu zuen; frontal zatar bat bai, eta beste jantzi edo apaiñgarririk etze goen. Egiteko eta neke andiak, Jainkoaren etxea bear zan bezela ikusteko, artu zituen.

Jaungoikoaren onraren egarriak desegiten zuen, itoitiak bereala tellatutik kendu, eta bost lekutan suak egin zirala ikusi, eta Josefa añ txukuna zan bezela, egun askotan ermita garbitzen nekatu zan. Erriko persona andizkiak limosnan eman ziozkatzen gaiakin frontal eta aldareko bear ziran beste gauza sagraduak josten asi, eta egun askotan jardun zan. Ermita ornitua idukitzeagatik artu zituen naigabe eta neke andien ondoren gaitz andi edo tabardillo eta alboko miñ gogor batek azpiratu zuen: emezortsi

sangria eginta ere gaitza aurrera zijoala ikusi, eta Medikuek etsi, eta Konfesorea kontuan ipiñi zuen. Baña Josefa konfesatuta, Elizakoak eginta, Zeruko indarrak artuta, lurreko Medikuek utzi bazuen ere, zerukoak libratu eta osoro sendatu zuen.

Konfesoreak gero kontaktzen zuen, alboko oñaze larriak baño animako pena garratzak Josefa geiago tormentatu zutela. Onen amore fiña Jainkoak alde guzietara progatu nai zuen. Sendatu zanetik zeruko biziera santu bat Santa Cruzen artu zuen. Jakiña zan gau eta egun Jainkoarekin bat egiñ, Jainkoagan pensatzen eta bere amorean beti sarturik jarduten zala. Bere orazioko orduak igaro, eta lo puxka bat eginta jaiki, eta zutik anbat kordegabetze gozo artu, eta illa-bezela bertan sentieragabe geratzen zan. Ermitan onela arkitzen zuten. Alako batean, berezko loa, edo egiazko Jainkoagan kordegabetzea ote zan jakiñ naiez, batek Josefaren besoa orratz batekin txit gogor sartuta utzi zuen: baña nola Jaungoikoaren loa baitzan; ez esnatu, eta ez mugitu zan. Elizan eta etxean askotan onela arkitzen zuten, eta lotsa eta naigabe andia artzen zituen. Ere mu batera, lurreko alabanzen iges, joan nai zukean; baña Jainkoak aren gogokoa ori etzala, erakutsi zion. Beste penak beti bezela Jainkoaren izenean eraman zituen, eta tratu gaiztoetan bere egiazko umilltasuna ederki erakutsi zuen.



AMABOSTGARREN BURUA

**NOLA ANIMEN KONBERSIOAN LAN EGIN,
ETA DEABRUEN PERSEKUZIOAK
GARAI ONETAN IGARO ZITUBEN.**

Bere bakar-lekuan Josefa askok billatzen zuten, eta Jainkoak bere serbitzariagana ontzeko zekarren lujuriako pekatuen lokatz itsusian sartuta luzaro zegoen gizon bat bere desditxa kontatzera etorri zitzaion. Alaitu zuen asko, Jainkoaren ontasuna batetik, eta alako pekatuen infernuko penak bestetik biziro eta ederki begietaratuaz. Baña gizon tristea etsia zegoela, eta ezin oitura galdu ori garaituko zuelakoan zegoen: *Emen infernuko atea zabalik ikusiko banu ere, amore itsusi onen indarrari eziñ gau artu nizaioke*, zion gizonak. Josefak aren etsipena ikusita bere orazioan Jaunari aren egjazko konbersioa eskatu zion, eta aren konfesoaregandik laster jakin zuen, Jainkoaren urrikaltasuna, eta nola gizon triste ark negar andiakin bere pekatu guziak konfesatu, eta biziera berri santu bat egin zuen.

Andre arrotz bat etorri zan, eta Josefarekin egun batzuetan jan, eta ejerjizio santuetan Santa Cruzen egon zan. Josefa aren konzienziako gauzakin beldurtu zan, eta bere alabanzarik nai etzuen. Andrea guziz triste biurtu zan: baña gau artan lo egin nai zuen puntuan oñaze txit biziak gorputz guzia tormentatu zioten, eta argitasun andi batean anima galdu aren egoera negargarria erakutsi zion: eta zeren ala bialdu zuen, oñaze aiek bera artu zutela. Goizean adiskide baten bidez andrea deitu, eta txit ondo artu zuen, eta aren aotik, Jainkoak erakutsi zion kondenazioko bidea aditu, eta konfesio andi bat eragin, eta bien konsuelo osoaz leku-aldatu, eta Josefak alde askotara lagunduaz infernuko bidea betiko utzi, eta libratu zan.

Miragarritzko konbersio asko Josefak egin zituen, eta orregatik deabrua amorru guziz gogorrarekin aren kontra biurtu zan, eta tratu gaizto asko eman, eta tormentatu zuen. Arratsalde batean turmoizko ekaitz izugarri bat asi, eta bere ermitako kanpana jotzera Josefa igo, eta oi dan bezela, asi zan, lurreko frutuak Jainkoak gorde zitzaion: orduan Zentoi izugarri edo infernuko mamuak aga andiaz armaturik sartu ziran, eta gora ta bera aserre andiaz zebiltzala, argiro ikusi zituen. Lenengoan zerbait izutu zan: baña Gurutze Santuaren konfianzan, kanpana jotzen nola beti sendo jardun baitzan, andik puska batera guziak ondatu, eta ekaitza desegin zan.

AMASEIGARREN BURUA

**JOSEFA-REN ESPIRITU ONA,
ERMITA BEREKO SANTU KRISTOEREN MILAGROA,
ETA KOMENTUAREN ASIERA JOSEFA-REN BITARTEZ.**

Josefaren naigabeen artean bat zan Santa Cruzen meza egunoro ez izatea eta enzutera eta komulgatzera askotan Parrokiara jatxi bearra. Jainkoak bearrekoaren eskariak bezela bere esposa Josefarenak aditu zituen. Elizan komulgatu, eta Jaunari eskerrak ematean, biotza amore jainkozkoan berotu eta golpe miragarriak ematen ziozkan: aren ots edo soñua an zeuden guztiak aditzen zuten. Josefak gauza agiri oiek guziz miñ zituen. Konfesoareak, bada, Jainkoari eta Josefaren umiltasunari begiratuta, ermitan meza esatea obeto zeritzan. Aren bizitza santua ikusita, egun-oro goiz berak meza esan eta egun-oro komulgatzen zan.

Onela Josefa bere Jabe Jainkozkoarekin zegoela, orduan etorri zan Bisitatzalle Jaunaren enkarguz Santo Domingoren Erljioko Sazerdote jakintsu bat Josefaren espiritua esamiñatzera ermitara igo zan. Lau ordu examiña onetan egin zituen, eta galdetu ziozkan gauzetan arriturik Josefari zegozkion baño eranzuera goratugoak aditu zituen. Erljiosoari guzia ondo zeritzan; baña komunioen usuera geiegi zala: eta Bisitatzalleak añ sarri ez, edo gutxiagotan komulgatzea agintzen bazion, ea ori ontzat eramango zuen? Aita, esan zion Josefak, nere naiari begiratzen eztiot, ezpada Jainkoaren naiari: nere naiari begiratuta sarritan komulgatu naiko nuke; baña banaketan komulgatzea Bisitatzalleak agintzen badit, obedezituko diot eta egingo det, zeren Jainkoaren naia, nik nai dedana dan. Ala ontzat emanik, egun-oro len bezela komulgatu zan. Komunio oriek Jainkoaren amore sutuan guzia irazekitzen zuten: ala Jesusen amorezko Sakramentua bere elizan eta aldarean gau ta egun iduki eta adoratzeko eresirik bizenak berari Josefak agertzen ziozkan. Orazio-etxe ermit ori izango zala, Jaunak adirazi zion: baña orduan, zer zan ori, argiro aditu etzuen. Garai orretan D.^a Maria Ignazia Hurtado-ri Zeruko burutazio bat etorri, eta Santa Bridaren Erljiosen komentu bat ermit artan egin zitekeala, gogora zetorkion.

Peñaflorida-ko Kondeen seme D. Ignazio Zenaruzako Abade Jauna Josefaren deboto eta ongille siñalatuak Santa Cruz-en mezak fundatu, eta limosna andiak egin zituen. Orietatik aldarea urreztatzeke Josefaren kon-



fesoreak nekazari bati pillare bat kalera jatxi zezala, esan zion. Onek gaizki aditu, eta Santo Kristoa aldaretik atera, eta eraman zuen, eta bidean beatz bat autsi zion. Konfesoreak penaz ori ikusi, eta bera Santa Cruz-a, bere lekuan ipintzera igo zan; eta mirari andiaz beatza bere lekuan ederki zedukala: eta nola Santo Kristoa inork ere ikutu ez baitzuen, Jainkoaren egiteko edo miraria zala, ezagutu zuten.

Zori oneko ermit artan Jainkoaren gloriatzko obra eder oiek ikusi, eta D.^a Maria Ignazia Hurtado txit animatu zan, eta Jainkoagan konfianza guzia zeukala, diru gabe, bereala komentu bat amabi zeldarekin egiteko asmoak artu zituen. Guziak arriturik zeudela, zimenduak artzen asi zan, zerekin pagatu iduki gabe, berrogei ta amar langille edo argin eta arotz bearrean ari ziran. Gure Aita San Ignaziok bere obra andietan ziona: Jainkoagan ustea zegoenean, guztia sobra zala: eta lurrean guztia falta zanean, Jainkoagan guzia fiatu bear zala. Ala obra onetan ikusi zan. Denbora gutxian mirari andiakin komentu ori egiñ, eta Fundatzalleak sartu ziran, egun batean gure D.^a Maria Ignazia Josefarekin sartu, eta luzaro ejemplo eder santu askorekin bizi izan ziran.

AMAZAZPIGARREN BURUA

INKISIDOREAK LOGROÑO-RA DEITZEN DUTE, TA ZER GERTA ZITZAION BERE ERRIRA BIURTU ARTE.

Asteasuko Ama Mariaren alde aurrezko esana beteta ikusi bera zan. Josefak bere Inkisizio puska igaro bear zuen, eta Gurutze ori bere Jabe maiteagatik eramateko garaia etorri zan. Zeruko erregaloen artean, nola, Josefa añ isill eta umilla zan, askoren aotan ibiltzea txit miñ izaten zuen. Aren gañean asko, eta ark nai baño hitz geiago egiten zan, eta askotan bear etzan eran. Besteen artean ez jakin batek begiramentu eta zentzugabe Jaunaren serbitzari onen gauza andi asko, baña eragabe, edo gaizki eskribatzeari eman zion: eta gero ziranak, edo etziranak agirian esan, eta barkatzen zituen. Orduan intenzio santuko batek gaitz ori erremediatzeko Inkisizio Santuko Auzitegiari kontu eman zion.

Gaztigu au artu, eta gauzak obeto esamiñatzeko Inkisidore Jaunak ogei egun barru Logroñon agertzeko agindea bere pakean zegoen Josefari eman zion. Esan oi zuen onek, mandatai au eman ziotenean atsegin-kontentu andi bat artu zuela, zeren gogoratu zitzaion ezin, baldin gela txit itxi edo illunen batean sartzen bazuten bere Jaun maitearekin zabaltasun geiagoan orazioan beti jardungo zala. Bere bidajea zegokion moldeziarekin egiteko, moldatu zan; baña aizetzar izugarri eta beste nekeakin pazienzi andian Logroñora eginta, Inkisizioko Komisario D. Diego Sabando Benefiziadu Jaunaren etxe berarentzat siñalatu sartu zuten. Au bere Ama errespeto eta bertute andikoarekin bizi zan.

Amabost illabete etxe orretan Inkisidore jaunak Madrid-ko Inkisizio Nagusiko jaunak ordena eman artean, zeruko mirari eta bertutezko ejemplo ederrak ematen bizitu zan. Presondegian beñere egon etzan: beti, eta onra eta begiramenturik andienez Apaiz jaun orrek iduki zuen. Kolejio artako Jesuita eskaldun bat konfesore artu zuen, eta Auzitegiara deitu zutenean, au bitarteko izan zan: Jesus onaz oroitu, eta onen izenean pozik agertu zan, eta ara joan ziran paperen berririk, edo orietan parterik edo inkuskizunik etzuela, itz ziñeztuaren bean egia esan, edo agertu zuen. An ere garai artan, emen bezela, betiko zeruko erregalo eta gurutzeak, Jainkoagan kordegabetze luzeak oi zituen zernai lekutan, nola Elizan ala etxean, eta Logroñoko Andre, Andizkiak jardiñetara, berakin eramaten zutenean ere.



Etxean orazioan kordegabeturik zegoela, usotxoak buru gañera eta besoetara etortzen zitzaizkan. Etxeko bat D. Diegoren mandatu batekin joan, eta Josefa kordegabetze gozo batean bera guzia eta gela argitasun eder edo errañu argitsuz beteta ikusi zuen. Erlijioso Jaun, eta goimallako Andre andizkiak Josefaren bizitza santua eta zeruko aren mesede eta erregaloak aditu, eta beren jaierez ikustera joan oi ziran: baña Josefa beti bera isilla ta umilla bere Jaungoikoagan sarturik, beregandik irtena arkitu oi zan. Munduko estimaziorik nai etzuen: baña zenbat igeskago zebillen, ainbat geiago onra eta estimazioak jarraitzen zioten, eta naigabe andia txit artzen zuen, eta bere Jabe maitea bakarrik gauza guzietan billatzen zuen.

Amabost ilabeteren buruan Santo Domingoko elizan zegoan, zeren jesuita beste kolejio batera joan, eta dominiko euskaldun bat bere konfessore zuen. Jainkoarekin an zegoela, Inkisizio Goienero ordena, edo gatzigua etorri zan. Logroño-ko Jaunak Auzitegira Josefa deitu, eta libretzat eman, eta nai zuenean bere errira, edo Azkoitira biurtzeko eskua zeukala esan zioten. Auzitegi santuan eta Teologo andian Josefaren bizitza eta bertuteak ondo soseguz ikusi, eta Jainkoak orietatik bere serbitzari maitearen kulpagabetasun garbi edo oleigabea onra eta sona andaz Logroñon agertu, eta banatu zuen. Ango komentu askotan beren ejemplo eta probetxurako Monjak beren artean estimazio andiaz artu nai zuten.

Inkisidore Jaunak berak ere, beren etxeetan bakoitzak pake santuan Jainkoa serbitzeko bakarreko gela on bat eman nai zioten; baña Josefa Espiritu Jainkozkoak giatuta, Zeruko argi seguruakin bere Azkoitira zekarren: eta Logroñoko ongille siñalatu, Jaun eta Etxandrea, aien mesede andiai zegozkien bere biotzeko esker-erakutsiak egin, eta bidajea egiteko asmoa artu zuen. D. Diego Sabando, eta bere ama ona, eta etxeko guziak zoraturik bezela eta txit atsegiñ-kontentuz Josefaren ejemplo santuarekin, an egon zan artean, egon ziran bezela, alkar-uzte onetan guziz triste geratu ziran. Orra bizitza santuaren ordañ edo saria, eta gure Jainko guziz ona serbitzea zer ditxa andia dan. Azkenik, D. Diegok bere estimazio eta naitasunaren siñalerik andiena emateko. Logroñotik onara ogei legoan berak lagundu zion, eta bere Santa Cruz-ko biotzeko eta Zeruko lekuan Josefa guzieren suerte onaz ipiñi zuen.

EMEZORTZIGARREN BURUA

KONTATZEN DIRA GERTAERA BATZUEK SANTA KLARA-KO KOMENTUAN EGON ZAN DENBORAN, ETA IDIAKEZ-KO ETXERA IGARO ZAN ARTE.

Josefa Logroñotik biurtzean Santa Cruz-ko Ermitara, bere garbitasunaren siñale agiriakin begiratzen zuten onen irmetasun andia, bere espiritua egiazkoa zana, eta ezaguturik guztiak onen bertuteen otsa, alabatzen zutela, Azkoiti-Azpeitietako Etxandre andizki guziak bereala joan ziran Josefa ikustera, au ikusiaz beren deseok nai erara asetzer. Berak nai zuen egin biziera bat guziz ezkutukoa Jesukristorekin; eta ermitan eraritzen bazitzaion ere denbora asko bakar lekuan orazio egiteko, txit beldur zan bere kordegabetzeetan jendeak ikusteaz. Orregatik opa zuen gorputza, ezkututzea munduari, Erljioko klaustro edo etxe itxi batean.

Ospitalean bizitu zan denboran iduki zuen adiskidetasun andia Santa Klara-ko komentuko mojakin, zeña fundatu eta dotatu zuen oparo D. Franzisko Zuazola Idiakez-ek. Komentu oni zor zion Josefak mesedea, bearrekoak karidadean arkitzen duten bezela; eta are mesede andiagoa zor zion Ama Maria Josefa Jesus-en, eta Munibeko, garai artan komentuko Abadesari. Agertu zuen Abadesa onek Josefari belua emateko zedukan deseoa, eta onetarako eskañi zuan bear zan dotea bere anaia D. Ignazio Zenarruzako Kolejiatako Abade Jaunak: baña nola denbora berean eskañi zion D.^a Ana Lasaldek Santa-Cruz-en Serora izateko titulua, zer egin bear ote zuen bere konfessorearekin egon, eta onek agindu zion, eska ziozala zortzi egunetako orazioan Jainkoari argia, bere gogokoen zana aututzeko.

Ala egin zuen Josefak, eta denbora au igarota, eman zion berri bere konfessoreari, nola Jainkoak ematen ziozkan argitasunak Santa Cruz-ko ermitara joateko, eta ala egin zuen onen baimenarekin.

Baña orañ Josefa Logroñotik biurturik, nola desasetzen bai zuen Erljioko klaustro edo jardiñ itxi bat, non mundutik urrutiraturik, iritxi zezan bere espiritua eta gorputzeko pakea eskatu zuen Santa Klarako Mojetan eta beretakotzat artua izatearen mesedea; eta bereala iritxi zuen, moja guzieren baimenarekin, eskañiaz onetarako bear zan dotea D. Pedro Idiakez, etxe onetako jabe prestatuak.



Sartu zan Josefa nobiziaduan milla seireun larogeita seigarren urteko Garagar illean, eta bere biotzak atsegin kontentu bat progradu zuen, baña alaingo, nola biajariak itxasoko ekaitzak igarorik, portura iritxi eta erakusten dutena. Emen bere espiritua atsedeten zan bakarreko orazioaren tarea gozoetan, eta ematen zan pozik Jainkoa alabaten Aingeruen beargaia egitera, arako Jesukristori eskañita zeuden Birjiñen koruarekin, zeñai zor zien amore berezi bat.

Komentuko Erlijiosa bati lurra ematen ziarduten garaian, Josefak bere eriotza zerabilen buruan, ondo begiratuaz, nola leku artan emango zioten egun batean bere gorputzari lurra: baña orduan aditu zuen barrungo boz edo oju andi bat, esaten ziola: *etxera zu emen lurpetua izango*. Elizkizuna bukatuta, bere burutik boz edo oju hura kendu nai zukean; baña ezin koitu zuen bere eresia, zeren uste zuen barrungo gaztigu au guztiaz zijoala, bada Santa Cruz-ko ermitan fundatu bear zan Santa Brijidaren komentu berrian bere profesia izan bear zuela. Amar illabeteen biziro nekatu zuten Josefa buratazio oek; bada argiro ikusten zan, zeñ minbera-tua geratzen zan bere biotza. Argatik bere orazioak luzatzen zituen, eskatuaz Jainkoari, bere argi jaungoikozkoa etsaiaren lazoak ezagutzeko, eta bere borondatea egiteko.

Orazioan eta mezako denboran komunkiro sentieragabe geratzen zan. Komentuko mirabe batek iñoiz arkitu zuen Josefa belauniko jarri, eta, illdakoaren siñaleakin. Deadar egiten zion, eta habitutik tiratzen; baña onek etzion eranzuten, ezta ere mugitzen; eskuetatik eltzen zion, eta, arkitzen ziozkan izoztuak: eskuan zedukan argia alderatu zion, sudurra erretzeraño; baña ala ta guzi ere sentiduaren siñalerik ematen etzuen. Bereala Abadesagana joan eta esan zion, Josefa illa zegoela. Baña nola baizekien Abadesak Nobiziaren onelako kordegabetzen berri, sinistu zuen izango zala hura arako San Bernardok deitzen dion eriotz ona, bizia kentzen eztuena, baizik geitzen duena. Agindu zion Abadesak mirabeari, bere gelara zijoala, eta korura joan ta Josefari esan zion: bere sentidura biur zedilla, eta ala obeditu zion nobiziak Abadesaren aginduari; eta bereala beregan jarri zan.

Añ utsunegabeak egin ziran onen kordegabetzeak egunaz eta gauaz, non Abadesaren illoba batek, zeña zan Josefaren zeldako laguna, bere izebari esan zion: Ama, nere laguna egun guzian lo dago, eta gauean lorik egiten eztu. Baita ere ikusi zuen Abadesaren illoba onek bi suertalditan uso zuri bat jaxten zeldaren gañeko solaidutik Josefaren buru-gañera, au orazio egiten zegoen garaian, eta lagun au geratu zan ikaraturik ikuskari arekin.

Igaro zituen Josefak nobiziaduan amar illabete pena oen artean, eta nola eskatu bear zitzaion Obispo Jaunari baimena, borondatea agertzeko, erabaki zan Josefa, ez agertzera, konsejua artu gabe. Sasoi artan Loiolako Etxe santuan zegoen Erretore Aita Andres Zupide, eta oni agertu ziozkan bere barrungo dudak, bere gogoerako persona baten bitartez. Onek kondaira au aditu zuenean, esan zuen: Bada Josefaren griña berezkoa bazan ere komentu artan profesatzea; bere barrungo gaztigu egun oro geitzen ziran aiek zirala siñaleak, nola Santa Brijidaren komentu berrian profesatzea Jainkoak nai zuen.

Enzun bazuen ere Josefak eranzuera au Ministroaren bitartez, Jainkoaren hitza bezela, jaiotzen zitzaizkan ezinkizun berriak au egiteko. Ez [...] zitzaion bere burura zer prueba eman bear zuen, eta mesede andiak zor zitzen Erlijiosakganako bere eskergabekeria; baita ere guziz miñ ematen zion Abadesaren obediendiatik aldegin bearrak, zeren Ama maitetsu baten egitekoak zor ziozkan. San Antonio Paduakoaren egunean, zeñari jaiera berezi bat gordetzen zion, sentitu zuen nola Santu onek goizeko lauretan eskutik guziz eztiro eltzen bazion bezela, mugitzen laguntzen zion, eta oetik jaikitzen, eta begiratu zuen bereala, nola ezinkizun guziak aldegin zioten, eta bere biotza soseguz geratu zan, Santa Brijidaren komentuan profesatzeko bere garaian.

Iritxi zan profesioko denbora, eta etorri zitzaion Parrokiako Bikario Lizenziatu D. Franzisko Izagirrerri kargua; eta nola onek zekien, komentutik kanpoan nai zuela agertu borondatea, klausuratik atera, eta eraman zuen Ospitalean dagoen Soledadeko kapillara. Erakutsi zuen Josefak gau artan an geratzeko eresia, gordairuan bezela: baña Bikario Jaunak ipiñi ziozkan begien aurrean erriko Andien etxeak; bere gordairurako gogo zuena autu zezan, eta ala autu zuen Idiakezko etxea. Bikario Jaunak albista au eman zien D.^a Luisa Egia, eta onen Seme D. Pedro Idiakez, etxe onetako Jaunari; eta bereala Ama Semeak joan ziran Soledadeko Kapillara, eta eraman zuten beren etxera, onetan agertuaz Josefarentzat zedukaten borondate ona.

Bigaramonean agertu zuen berriro bere gogo edo borondatea, nola orduan etzan arkitzen bere Nobiziadua aurrera eramateko eran, Jainkoaren serbitzurako berak zeduzkan arrazoi-bideakgatik.



EMERETZIGARREN BURUA

IDIAKEZ-KO ETXEAN JOSEFAREN BEARGAIK.

Josefak Idiakez-ko etxea aututzea zirudien zala zeruko argitasuna bezela, bada an iritxi zuen gela bakarreko bat leioa oratoriora zuela, non zelebratzen zan egun-oro meza santua.

Etxe artan D. Ignazio Esandi bizi zan, eta onekin konfesatzea Josefak txit deseo zuen: baña Apaiz au guziz jakintsa bazan ere, etzedukan konfianzarik beregan, konzienzia añ minbera bat esamiñatzeko. Berriz Josefak erregutu zion arren egin zegiola karidade, bada Jainkoak lagunduko ziola. Ala onen erreguz asi zan konfesioak aditzen, eta zazpi urtetan jarraitu zuen.

Etxe onetan sartu, eta egun gutxi barru ezagutu zuen konfesoreak nola Josefa Jainkoagan kordegabetzen zan, eta nola Josefak agertu nai etzitukean; baña ez onen arreta eta ez Konfesorearena izan ziran asko, etxeko mirabeai ezkutatzeko. Jainkoazko gauzen gogoetarako zeduzkan siñalatuak zortzi edo bederatzi ordu, non geienetan geratzen zan beregandik irtenda, eta oraziotik irtetean, edo Konfesoreak andik ateratzean, ozta zutik egon al zan. Irakurri oi zituen konfesoreak Josefaren aurean liburu on batzuek. Irakurtza onetan, dio konfesoreak; samurtzen zala asko Josefa; batez ere Pasioa irakurtzean kordegabe geratzen zala. Ezaguturik konfesoreak orazio-aldi añ luzeak agitz aultzen zutela, denbora bear bearra siñalatu zion aginduaz, zazpi ordutik etzedilla igaro egunean.

Jai egun batean denbora luzeagoan orazio egin nai zukean, siñalatu zedukan baño, eta eskatu zion Konfesoreari oratoriora ordu bietan joateko baimena, eta onek eman zion, esanaz edo aginduaz, iruretan irten zedilla oratoriotik. Bost ordu igaro ta guzion sartu zan etxeko mirabe bat oratorioan, eta arkitu zuen pulsugabe, illdakoaren siñaleakin. Zukurutz edo susto onekin deadar egiten zion, eta arropatik tiratzen zion; baña onek erantzuten etzion. Konfesoreari esan zion, eta oek era artan bertan arkitu zuen. Konfesoreak agindu zion, biur zedilla beregan eta beregan biurtean lenengo egin zuen gauza zan, eseri eta begiak irikitzea, baña ezpañak mugitzen bazituen ere, hitzik ezin esan zuen, bere aultasuna zala bide. Konfesoreak gero armonia bizia eman zion oratoriotik iruretan irten etzalako; eta eranzun zion: *Ai, Jauna, baldin berorren mesedeak baleki zer obra gaiztoa egin didan nengoen lekutik ateratzeaz, denbora gaigoan utziko zidan.*

Orazioko orduaz osterontzean arazotzen zan Josefa bere eskuetak lanean bere gelan, non geienetan bakarrik uzten zuten. Konfesoreak, iñoiz sartzen zanean, liburu Jainkotiren bat irakurtzen arkitzen zuen, bere lana eskuetan zuela, guzia lo Jaungoikozko batera emana. Onetan, diote denbora artan Idiakez-en zeuden mirabeak iñoiz zerbaitegatik Josefaren gelara edo oratoriora joaten ziranean beregandik irtena eta kordegabetua, aditzeko gor eta erantzuteko mutu, arkitzen zutela.

Aurtasunetik igaro zituen neke-trabaju utsunegabeakin onen gorpuzta guziz eroria bazegoen ere, bi ordu eta erdi baizik loan ematen etzion, eta au adrilluaren gañean, edo oiaren gañean bere arropakin. Egun-oroko bere janaria iru ontzatik igarotzen etzan: eta iñoiz konfesoreak agintzen bazion alimentu on bat ar zezala, obeditzen zion, baña andik laster erbesatzen zuen, zeren eziñ estomaguak janari piñik artu zion.



OGEIGARREN BURUA

ZERAMAZKIEN MIÑANTZE ETA NAIGABEAK.

Josefa lau urtean Idiakezko etxean egon zan denboran aditu oi ziran onen gelan ots, eta kolpe izugarriak. Oraindik bere lo laburrean ere tormentatzen zuen demonioak garbitasunaren kontrako begitazio gaiztoekin. Infernuko espiritu ats onen amorrua bakarrik keñadakin asetzen etzan, bada askotan ematen ziozkan golpe guziz andiak espaldetan, buruan eta gorputzaren beste aldeetan, Konfesoreak eskribatzen du, liburu jainkoti bat irakurtzean, oartu zala nola Josefak eskua besora zeraman, oñaze andia sentitzen, bazuen bezela; eta ea zer zuen galdeturik, eranzun ziola: orduan bertan ematen ziozkatela kolpeak besoan, berak ezer ikusten ezpazuen ere.

Andiagoa izan zan beste suertaldi batean bere pena, non geratu zan hitzgabe, eta gorputz guziko ikara andiak. Konfesoreak laguntzen zion Ebanjelio santua irakurriaz, eta exortatzen zuen tormentu aiek eskañi zegiozkala Ama Birjiñari. Orduan egiñal guzia egin zuen hitz egiteko, eta neke andiaz esan zuen: *Jauna, ur bedeikatua, bada infernu guzia emen dagoela dirudi*. Puska bat sosegatu zan, eta gero esan zuen, eskatzen zuen erremedioa Konfesoreak eman ziola; baña gorputzeko oñazeak luzaro iraun ziotela.

Sarritan oi zituen oñaze miñakin oiean zetzan Josefa, eta eskatu zion konfesoreari Komunio santua. Konfesoreak oratorioan meza esan, eta eraman zion Komunio Santua, eta agindu zuen, onek bere gelatik oratoriora zedukan leioa ixteko, beste meza bat esan artean, zeren aren umiltasun andia ikusten zuen. Bigarren meza bukatu, eta joan ziran etxeko mirabeak Josefa serbitzera, eta arkitu zuten lo eder berezkoan bazegoen bezela: baña nola konfesoreak onelako loen berri zekien, mirabeai esan zien, kanpora irten zitezela, eta Josefari agindu zion, beregan biur zedila, eta kordegabetze artarako zer bide izan zuen esan ziozala, eta eranzun zion: bere gelatik oratoriora zeukan leioa itxi zanean, bere biotz guzitik Jainkoari esan ziola: *Jauna, Zuretzat eztago ate itxirik, baldiñ nigana etorri nai badezu*. Eta ala, dudarik gabe anima onen erregu eta deseoa Jaunak enzun zituela.

Erramuko igande batean agindu zion konfesoreak, etzedilla egun artan komulgatu, zeren guziz eroria zegoela, eta baraurik eziñ egon zala ikusten zuen Pasioko meza santua esan artean: baña au oratoriora zijoala,

zerbait alimentu gaixoak artuko zuelakoan, iltzeko txarraldiakin arkitu zuen. Zer zala bide hura zan galdetu, eta etzion bereala eranzun, zeren bere agoniak etzioten uzten hitz egiten: baña konfesoreak animatu eta neke andiaz agertu zuen egun artan komulgatu gabe geratu bearra zala. Konfesoreak billatu zuen nola baraurik zegoen, eta komulgatzeko baime-na eman zion, eta baimen au eman zion bezañ laster bere arpegia guziz argi jarri zitzaion, lenago illaren itxuran bazegoen ere, eta argitasun onekin artu zuen Jaun Sakramentatua.

Baita ere garai onetan eraman zituen hijadako miñ guziz zorrotzak ikaratzen eta arritzen zala bere serbitzaria onen pazienziatz, eta oñazerik andienean esaten zuela Jesus-en izen gozoa: *Jesus, Jesus*.



OGEITABATGARREN BURUA

BESTE BERE BARRUNBEKO NAIGABEAK.

Ainbeste oñaze eta larritasunen artean Jainkoak agertzen bazuen ere, bere serbitzari onen biotza orazioan amorezko sutegi bat zala, eta bere bularra martirioko labe bat, ezagüera au jaxten zan bere humiltasunera eta bere eziñ asmatuen beldurraz, egiten eta padezitzen zuen guziak estutzen zuen, nolere-bait Job santua bezela, izanik au sufrimentu eta gaitz gabe-tasunaren ejemploan guziz miragarria.

Bere obra onetan Jainkoagana zuzen bide egiten etzuelako irudipe-nak bizirot estutzen zuten: zeren izanik bere biotzeko eresi guziak egiten zituen gauza guzietan Jainkoaren honrarik andiena billatzekoak, beñere egiten etzuela uste zuen. Ainbeste ordu orazioan ematen zituenak, ezer ez edo alferrak zirala uste zuen; bada onen azkenean bertutez beartsuago arkitzen zala. Beldur zan, bere Komunio sarritakoak Jainkoarenak izango ote ziran; egonik bera estatu txarrean. Eta zeren konfesoreak beldur oek despreziatzen ziozkan geitzen zan beragan pena guziz andia, Konfesoarea engañatzen zuelako, eta arteraño berarekin trata-bidea izan zuten guziak ere engañatuak zeduzkalako.

OGEITA BIGARREN BURUA

SANTA CRUZ-KO KOMENTUAREN OBRA EGITEA AURRERA DJOA, ETA BERA FUNDATZEKO EGINKIZUNAK.

Esan zan, zer ezinkizunak izan ziran Santa Brijidaren komentuko obra berriaren gañean, D.^a Maria Ignazia Hurtadok zimenduak bota zioz-kanean, Jainkoaren serbitzuko torre oni batere dirurik gabe aurrera jarrai-tzeko. Baita ere esan zan, nola komentua kanporunzko obra, jende guzia arritzen zan eran egin zan: baña barrunen palta ziran korua, zeldak eta bear ziran beste gauzak, eta oek egiteko dirutza asko bear zan, eta etzegoen besterik, baizik Jainkoaren laguntza bere Ongilleetan.

Ezinkizun au guziz andia zan gizonen begietan, baña laster aldendu zan; zeren obran bear zan guzia ematera persona Jainkoti batzuek mugitu ziran. Triunfo onen zati andia zor zitzaion Bitoriako Santa Brijidaren komentuari, zeñak eman zituen bi milla eta bosteun dukat, komento berria egiteko.

Aita Pedro Jeronimo Kordoba, Gaztelako Probinzia gobernatu, eta gero Loiolako kolejiara bildu zan atsedetera, edo etxe santu onetan illtze-ra: eta onek ere artarako limosnak egin zituen.

D.^a Luisa Maria Egia, eta bere seme D. Pedro Idiakez-ek eman zituzten ekai asko, nola ta beste limosnak obra onetarako, onela agertuaz komentu berrirako zedukaten gogo ona, eta euren etxean zedukaten Jose-faz egiten zuten estimazioa. Denbora berean, eta gauza bererako eman zituzten limosna ugariak D. Franzisko Antonio Munibe, eta D.^a Ana Luisa Idiakez, Peñafloridako Konde, ongille guziz andiak.

Limosna oek, eta geitu ziran besteak obra guziari buru emateko ser-bitu zuten, ala kuru, zelda eta bear ziran beste gauzai. D. Antonio Ortu-zar, Parrokiako Bikarioa, zeñak begiratu zuen komentuko obretan, eta gero erlijiosen konfessore nagusi izan zan, eskribatzen du nola an bearrean ziarduten langille batzuek goitik erori, eta ezeren kalte gabe geratu ziran.

Komentua bear bezela oso egitea gauz anditzat begiratzen bazan ere, au eskuratu zan: baña ostera jaio ziran beste aldapa eta ezinkizunak atzeratu zuten mojak ipintzea. Azkoitiko Erriak, beretar guziakin eta Eli-zako Kabildoak guziz gogo zuten, eta zeuden sinistruak fundazio berrian; baña Iruñeko Apaiz nagusi Jaunaren baimenean arkitu zan beatz-toparik



andiena. Denbor-artan zan Apaiz nagusi D. Juan Grande Santos San Pedrokoa; eta Jaun au makurtzen bazan ere fundazioa ontzat ematera, arkitzen zuen, etzegoela bear zan errentarik mojak bear zutenerako, eta au gauza guziz bearra zala, Aita Santuak erabakia zeukatenez. Egia da, denbor-artan etzegoela errenta jakiñik komentu berrirako, eta argatik eskatzen zan, Apaiz nagusi Jaunak errenta ontzat ematea, Nobiziadua eskatzen zutenen doteak, au da, urtean sei milla dukat izatera iritxiko ziranak, eta Santa Brijidaren beste komentuaren batetik etorri bear zutela fundatzalleak beren premia guzietarako bear zan errentarekiñ, eta gañera eskas zana ipiñiko zala.

Eskari onek Apaiz nagusi Jaunagan lekurik arkitu etzuen, zeren errenta seguru etzegoen, eta geroko doteen ustea seguru etzan; eta ala ukatu zuen bere baimena, non eta errenta jakin segurua ipintzen etzuten. Errenta au ipintzeko segurutasunik etzegoen, eta ala fundazioa galdutzat zegoen; eta komentu onetara besteren bateko mojak beren errentakin etorri bearko zutela, esaten zan. Alaz ta guzi ere, Josefak tau urtez aurretik igerri zuelako bere orazioan; geroanean ere iritxiko zala Santa Brijidaren ordenako mojak ipintzea, bere biotzean uste eta esperanza firme eta segurua gordetzen zuen, fundatzalleak etorri bear zutela.

OGEITA IRUGARREN BURUA

EMATEN DA ESPAÑI ONETAN, DAUDEN SANTA BRIJIDAREN ERLIJOKO KOMENTUEN BERRI.

Valladolid-ko Santa Brijidaren komentua fundatu zan milla seireun ogeita amazapigarren urtean. Lenengo komentu au fundatzera etorri ziran (San Agustiñek D.^a Mariana Escobar beneragarriari agindu zion bezela) Elizako Maisu andi onen alabak. Lenengo fundatzalle eta abadesa zan Ama Ines Asunziokoa: bestea zan Ama Mariana San Jose-rena. Santa Brijida bezperan artu zuten habitua bederatzi donzella goimallakok; bost korurakoak, eta beste laurak lega-tzarako: guziak ziran espiritu andi-koak Erljiio berriari oña emateko.

Bederatzi oetatik lenengoa zan Ama Maria Sakramentu Santuarena, D.^a Marina Beneragarriaren laguna. Bigarrena Ama Anjela, Jainkoaren Amarena, orabat D.^a Marinaren laguna. Beste irurak ziran, Ama Menzia Jesus Mariarena, Ama Trinidad guziz Santuarena, eta Engrazia Kristorena. Iru oek ziran D. Juan Andonegi eta D.^a Maria Ganboaren alabak Gipuzkoako Probinzi onetan Deba-ko alabak.

Beste laurak ziran, Katalina Santa Brijidarena, Ama Maria San Ignaziorena, Antonia Jesusena eta Katalina San Jeronimorena.



OGEI, TA LAUGARREN BURUA

GAI BERONEN GAÑEAN.

Valladolid-ko komentuari Santa Brijidaren beste komentuen artean deitzen zaio Nagusia, bada ango abadesari gordetzen diote besteak obediencia euren Erreglako gauzen batzuetan. Bitoriako Erlijiosa oñ-utsetakoak igaro ziran Logroño-ko Urira, eta au zala bide geratu zan komentua utsik. Uriko Jaun batzuek nai zuten San Agustiñen ordenako mojak komentu uts artan sartzea, besteak arrimatzen ziran San Bernardoren ordenakoetara, besteak Santo Domingoren etakoetara, azkenik besteak zioten itxi zedilla komentua.

Denbora artan igaro zan Valladolid-a bere egitekoren batera D. Simon Gobeo-koa, eta onek jakiñ zuen, Santa Brijidaren erlijio-ko berri. Komentu berriko Mojai agertu zien nola Bitoriako komentuan Santa Brijidaren Alabak sartzea nai zukean, eta onetarako eskribatu zuen Urira, eta onen aginduz igaro ziran artarako izendatutako gizon bi, fundaziorako alkar aditzera. Lenengoan ezinkizun andiak izan ziran, baña guziak eskuratu, eta irten ziran fundatzalleak Valladolid-ka komentu Errealetik Bitoriako fundatzera Martxoaren bederatzian, eta milla seireun eta berrogeita amairugarren urtean, Ama Ana Espiritu Santuarena, abadesa. Ama Menzia Jesusena eta Engrazia Kristorena, Priora eta Superiora. Ama Petronilla Enkarnaziokoa, eta Josefa Aingeruena, tornuzai eta koruko kantari, eta Katalina San Jeronimorena, lega.

Bitoriara iristean, irten zan erri guzia oek artzera, atsegintasun andiaz. Artu zuten komentu berriaren jabetasuna, eta ipiñi zuten klausura, beren Erlijio-ko patroai San Joakin egunean. Eman zan meza solemnea Jaun Sakramentatua agirian zegoela, eta predikatu zuen D. Franzisko Aguadok.

Bitoriako komentua fundatuta emezortzi urtez geroago ekarri zuen Jainkoaren esku ongilleak Erlijio onetako perla, Probinzia Gipuzkoakora, bada Lasarteko errian fundatu zuten irugarren komentua, D. Migel Okendo Jeneralarekin D.^a Teresa San Millanekoak euren izengañezko Maiorazgo guziz sonatuaren jabeak. Ezkonz onetako lenengo alabak ziran D.^a Maria Teresa, eta D.^a Antonia Franziska, eta oek agertu zieten euren gurasoi Santa Brijidaren Erlijiosa izateko zedukaten gogo, eta ala Bitorian

Magdalenako komentuan habitua artu, eta biak profesatu ziran Agorraren amargarrean, eta milla seireun irurogeita zortzigarren urtean.

Oek profesatu eta iru arte eta erdi geroago egin ziran Lasarteko komentu berriko alkarreak, eta irten ziran ara fundatzalletzat Ama Petronilla Enkarnaziokoa Bitorian abadesa zegoena: Ama Franziska San Juan Bautistarena eta Ama Ana Franziska Jesus-en Jaiotzarena priora eta superiora. Fundatzalleen bi alabak, Maria Teresa Gurutzekoa eta Antonia Franziska Jesus Maria, tornera eta sakristia-zai, eta Maria Lorenza San Agustiñena, lega.

Lasartetik iru legoaz onuz irten ziran oek artzera Komentu berriaren fundatzalle eta San Millango Markesak, D. Migel Okendo Jenerala eta bere seme D. Migel Karlos beste aide eta adiskideekin.

Baita ere irten zan D.^a Teresa San Millan-goia bere alaba eta adiskideekin oen ongi etorrira, onetan agertuaz euren begiramentu eta erreberentzia Jesukristoren Esposai. Moja fundatzalle oentzat zeuzkatzen ipiñiak zeldak, non jabetasuna arturik, ipiñi zuten klausura, eta an egon ziran lau urtean guziz ondo begiratuak, komentu berriko obra guzia azkendu arteraño.

Fundatzalle oen bi alabai jarraitu zien gogoan beste iru alabak ere, zeñak ziraden, Ama Ana Josefa Konzeziokoa; Ama Maria Magdalena Enkarnaziokoa Lasarten denbora artako abadesa: eta Ama Brijida Jesus Maria denbora berean Azkoitiko Santa Cruz-en abadesa.

Erlijio onetako laugarren komentua fundatu zan Karrion-ekin Palenziaren erdian dagoen Naba-ko Paredes-en milla seireun irurogei ta amaikagarren urtean. Au fundatzera irten ziran Valladolid-ko komentu Errealetik Ama Franziska Jainkoaren Amarena, abadesa: eta beste beargai guzietarako Ama Maria Asunziokoa: Andrea San Joserena: Maria Franziska San Jeronimorena, eta Maria Konzeziokoa, lega.



OGEITA BOSTGARREN BURUA

FUNDATZALLEAK LASARTETIK IRTETERAÑOKOAN EBAKI ZIRAN EZINKIZUNAK.

Santa Brijidaren Erljioko lau komentuen berri eman da, eta orañ Azkoitiko Santa Cruz-ko fundatzalleen aukerara biurtu bear da. Azkoitiko erriak guziz benaz eskatu zion Bitoriako Brijiden komentuari, komentu berri onetarako fundatzalleak eslei zitzala. Erljiosak fundaziora etorri nai zuten, zeren euren Erljioa zabaltzea deseo zuten; baña Kalaorrako Obispo Jaunagan arkitu zan uste etzan gogortasuna, moja oiei fundazio-ira irteteko eskubidearen ematean.

Garai artan zan Kalaorrako Obispo D. Pedro Lope, bertute guziz andikoa. Apaiz nagusi au bere Obispadura iritxi ta laxter Bitoriako Brijidak enkargatu zuten D. Dionisio Kolmenares, euren Konfessore nagusia, moja guzien aldetik komentu berriaren, eta nola Azkoitiko erriak fundatzalle berriak eskatzen zituen berri berari emateko. Konfessoreak gai onen gañean hitz egitean añ gaizki artu zion Obispo Jaunak, non gai onen gañean geiago hitz egitea galerazi zion.

Mojak begiramentuzko ixilltasunean puska batean egon ziran; baña gero Obispo Jauna buruan beteko zutela, zañak eman, eta onen borondatea jakiñ nai izan zuten, eta ala eskribatu zion Ama Maria Bernarda Koroazioko, abadesak, eta Obispo Jaunak eranzueran obendienziaren-bean agindu zion baimenik eska etzezala, eta fundazioaren gañean hitzik egiñ etzezala. Erljiosa oek eskribatu zioten Azkoitiko erriari eziñ etorri-ko zirala fundaziora, zeren Apaiz Nagusiak artarako eskubiderik eman nai etzien.

Azkoitiko erriak gero Bitoriako Mojen bidez eskatu zuen, bada Valladolid-ko komentu nagusiak bial zitzala fundatzalleak. Erljiosa oek orobat nai zukeen euren Erljioa zabaltzea, eta ala agindu zuten bialduko zituztela, milla ta bosteun erreal errentarekin.

Izanik Valladolid-ko komentu nagusiaren eskañtza au guziz estimagarria, eman zitzaion onen aditzera Iruñeko Obispo jaunari, bada onen baimena eskatzen zan egiñal guziaz fundaziorako; baña Jaun au atzera zegoen, bear zan errenta arkitzen etzuelako. Alabañan Preladu andi aren nai erara errenta beñere ipintzen etzalako, azaldu zuen argiro bere borondatea: bada fundatu bear bazan, Obispo jaunak berak esleitu bear zuela

lenengo fundatzallea, eta ala autu zuen Ama Maria Teresa Gurutzekoa, zeren zekien ezen Ama onegan argitasun andiak arkitzen ziradela, eta nola zan Probinziako alaba, eta etxe guziz onekoa, bere bertuteen otsarekin erakarriko zituela donzella asko eta oen dotearekin estaliko zirala komentuaren premiak.

Iruñeko Obispo jaunak onela bere gogoia agertu zuenean, Azkoitiko erriak eskatu zion Lasarteko Komentuari Ama Maria Teresa Gurutzekoa beste Mojakin bial zitzala, euren Erljioa Santa Cruz-en fundatzera. Berri au lenengo iritxi zan Lasartera Pazkoa Espiritu Santu egunean, eta Moja oek lenengoan ezinkizun andiak ipiñi bazituzten ere, San Franzisko Asisen egunean, eta milla seireun larogeita amargarren urtean, erabaki ziran fundatzalleak bialtzera, zeren fundazio onek Zeruko ainbeste siñale zekarkien.

Azkoitiko andizki batzuek beartu ziran urte oro Komentu berriari irureun dukat pagatzera, sei erlijiosa profesatu, eta oen doteak beste ainbeste eman zezateraño. Lasarteko komentuak eskañi zuen fundatzalleetako batek bizitzeko bear zuena, eta onen Patroi San Millan-go Markesak beste fundatzalle batek sei urtean bear zuena.

Esan diran errenta edo onakin bakarrik Azkoitiko erriak eskatzen zuen baimena, eta Lasarteko Komentuak bialdu zuen Iruñera euren Konfessore nagusi D. Juan Estillarte-koa, Komentu onen izenean iritxi zezan eskubidea Santa Cruz-ko fundaziora irteteko. Konfessore au iritxi zan Iruñera Martxoaren lenengo egunean, eta arkitu bazituen ere Obispo Jaunagan bere baiezkua emateko aldapak geroenean ere firmatu zuen San Jose egunean, esanaz arriturik: *Izan gera barrundik beartuak baimen au firmatzera*. Santa Cruzko Komentua bere oñean jarri, eta ikusia ematera etorri zanean, hitz oek esan zitzen berriz Obispo jaunak bere erlijiosai: *Fundaziorako baimen au ematera barrundik beartuak izan giñan*; baña eztegu damu.

Obispo Jaunak agindu zion Lasartek Komentuari, koruko moja bi eta lega bat aututzeko, oek lagun zegoiten fundazioan Ama Maria Teresa Gurutzekoari, zeña izan zan autua lenengo fundatzalletzat. Komentuak iru erlijiosa oek esleitu zituen, eta euren lagunai azken-agurrak egiñik, jarri ziran bidean lau fundatzalleak, Apaiz eta andizki askorekin batean, Martxoaren ogeita seian, eta milla seireun larogeita amaikagarren urtean.



OGEI TA SEIGARREN BURUA

EMATEN DA SANTA CRUZ-KO KOMENTUKO FUNDATZALLEEN BERRI, NON JOSEFAK HABITUA ARTU ZUEN.

Lenengo fundatzalle Ama Maria Teresa Gurutzekoa D. Migel Oken-
do Jeneralaren eta doña Teresa San Millan-goaren lenengo alaba zan. Jaio
zan Donostian, milla seireun berrogeita zazpigarren urtean. Aurtasunetik
izan zan bertutera guziz griñatua, eta batez ere beartsuakganako guziz
urrikaltsua. Amabi urte zituenean egin zuen garbitasuna gordetzeko boto
edo promesa. Ogei urtetarenz artu zuen habitua, eta profesatu zan Bito-
rian Magdalenako Komentuan. Bere profesiotik zerbait denbora geiago-
ra guziz gaizkitu zan, eta bizitzeko esperantzarik ematen etzioten: baña
gaxoak obedienciagan zedukan bere ustea, eta ala arkitu zan bere gaitza-
ren sendagarria; bada bere abadesari esan zion: Ama, beraren erreberen-
ziak agin begit ez nadilla ill; eta abadesak bere buruaren gañean Ama San-
tisimaren imajiña bat ipiñi; eta bereala sendatu zan. Bitoriatik igaro zan
Lasarteko komentua fundatzera.

Bigarren fundatzalle Ama Ana Josefa Maria Konzeziokoa Ama
Maria Teresaren aizpa zan, ala odolean, nola bertutean. Ama au izan zan
Lasarteko komentuan lenengo nobizia, eta bere nobiziadu urtean Santa
Brijida egunaz leku goi batera igo zan koruko leioa istera: andik jo zuen
bea, eta erlijiosak uste zuten, illa zegoela; baña au farrez jaiki zan, eta
bereala kantatu zituen bezperak. Bizitu zan Lasarteko komentuan ogei
urtean, eta gero Santa Cruz-en bizitu zan ogeita amar urte ta erdian, non
abadesa sei urte ta erdian izan zan.

Fundaziora etorri zan irugarrena zan Ama Katalina Santa Brijidare-
na, eta au Komentu berrian izan zan Nobizien Maestra. Bizitu zan Santa
Cruz-en amar urtean, eta gero itzuli zan Lasarteko bere komentura.

Iru Ama oekin etorri zan fundaziora Juana Maria San Joakin, lega,
eta bizitu zan Santa Cruz-en ogeita sei urtean. Denbora onetan bere Erli-
jioko eginkizunak osoro eginta, gañera jarduten zan beste beargai asko-
tan, andreak dagozkienetan ezezik ez dagozkienetan ere. Onek komun-
kiro egiten zuen zapatarien, igeltseroen eta arotzen beargaia: eta azkenik
bakarrik onek egin zuen kolumna edo pillare salomoniako ederrakin, eta

urreztatu ere zuen aldare nagusia. Biurtu zan gero Lasarteko bere komen-
tura.

Martxoaren ogeita zazpian iritxi ziran lau fundatzalle Loiola-ko
Kolejio eta etxe santura: bear zan begiramentu eta moldesiaz artuak izan
ziran. An zegoen beren begira D.^a Ana Lasalde-koa Etxesantu artako
azkeneko jabea; onek berekin eramateko Azkoitiko bere etxera, non egon
ziran bi egunean. Martxoaren ogeita amargarrenean irten ziran etxe one-
tatik goimallako Etxe andreak lagun zituztela, orriko Parrokiara, non
komulgatu ziran. An zuzendu zan oraindik ikusi dan prozesio andi, eder
eta apañena, oek komentura eramateko. Fundatzalleak zijoazen Apaizen
koruaren erdian, oek kantatuaz Jaunari eskerrak emateko salmoak. Gis-
onetan iritxi ziran Santa Cruzko komentura, non komentuarren jabe
egñik, ipiñi zuten klausura, Santa Brijidaren etxe berrian. Onela geroe-
nean ere bete ziran ainbeste urtetako eresiak.

Elizako Kabildoak eman zuen meza guziz ots andikoa, gure Jauna
agirian zegoela, eta predikatu zuen Aita Franzisko Aleson, Loiolako Erre-
tore Jaunak.

Bigaramonean artu zuen habitua D.^a Maria Ignazia Hurtado Men-
dozakoak, zeñak habitua onen zalez eta deseoz ainbeste urte igaro zituen:
orobat egun artan bertan artu zuen habitua gure Josefak: bada Idiakez-en
lau artean egon zan denboran egin ziozkan Jaunari erreguak etxe artan
bizitzeko eta ala iritxi zuen bere negarren frutua, emanaz Jaunak bakar-
lekuan bera bizitzeko etxea.



BIGARREN LIBURUA

LENENGO BURUA

ZER BEROTASUN ANDIAZ JOSEFAK NOBIZIADUA ASI ZUEN.

Ogeita emezortzi urtean gure Josefa beneragarriak agertu dizkigu bere bertuteen ejemplo asko eta bere bizitza gaitzgabea munduko labañarrien artean. Jainkoak atera zuen munduko gerra eta garaipenetatik eta ipiñi zuen Santa Brijidaren etxean, non orma eta ate itxien artean ezkutu, eta egin zion mesedeagatik Jaunari eskerrak ager zegiozkan Dabid Errege santuaren hitzak: *Jerusalem, alaba zazu zere Jauna: Sion, alaba zazu zere Jainkoa.*

Idiakezko etxetik komentu berrira igarotzeko doterako bear zan limosna Etxe onetako Jaun D. Pedro Idiakez-koari zor zion: baita ere zor zien D. Franzisko Antonio Munibe-ko eta D.^a Ana Luisa Idiakez, Peñafloidako Konde eta ongille guziz andiai.

Erljioko habituaren artzean gozotasun añ guzizkoa artu zuen, non beregan ezin kabitu zan: Bere espirituko gozotasun au sortzen zan esperanzatik, Erljioko biziera bertutetsu, eta fundatzalleen ejemplotik, guzi orretan bertutean obeto aurreratuko zalako uste osoan. Jaunak sendotzen zuen mesede oekin, eta bereala saiatu zan biziera berriak eskuetaraten ziozkan beargaietara. Nobiziaduan sartuta laster bere Abadesari umiltasun andiaz erregutu zion, Jainkoaren amoreagatik eskatzen ziolata, bere utsegite guziak begietaratu eta berakgatik merezi zuen armoni edo errierta eman ziozala, eta Ama zan bezela, ezer ere ez gordeaz emango zuela bere amorearen siñalerik andiena. Au izan zan gure Nobiziaren lenengo eskaria komentu berrian.

Erljioko siñalatuta zeukatzen orduetan zuzen zuzen eta iñoiz ere utsik gabe beti an zan, eta Jainkoaren borondatea osoro egitera beti zaiztzen zan. Santa Brijidaren erreglak daukatzi siñalatuak iru ordu biotzeko oraziorako; bi ordu jarraitukoak goizean lau ta erdietatik seita erdietara, eta arratsaldean bostetatik seietara, eta gañera geratzen bazitzaion astirik, jarduten zan Jaikozko gauzetan pensatzen. Eta azkenik, ezaguturik ondo balio zeñ andikoa dan Erljioko bizitzaren beargaiak berotasunaz asitzea, nobiziaduko lenengo egunetan beargai oek egiteko agertzen zuen gogo eta ernaitasunak Moja guziaz ejemplo ederra ematen zien: ala eskribatzen du bere abadesa Ama Maria Teresak: «Josefa habituarekin ikusi zanean,



bada bakarrik habituan zan Nobizia, zeren bertute askoren erpiñera igoa zegoen, bere obediencia santuarekin bertute oek geituz zeramazkien, izanaz onen umiltasuna guzien ejemplo, eta izanaz bera lanean lenengoa, bere aurtasunetik egin zituen penitenzi askoak, eta bere denbora guzian demonioak eman ziozkan tratu gogorakin guziz eroria zegoelarik».

Abadesak nobiziaren aultasun eta eroritasuna ikusten zuen, eta penitziaren artean gorputza illerazteko zeuzkan eresi eta deseoa zozgiera andiaz neurritan erakartzen ziozkan. Nobizia onek eskatzen zion abadesari bere gorputza geiago kastigatzeko eskudantzia, baña onek, edo ukatzen zion eskudantzia, edo bialtzen zuen bere Konfesoaregana, bada eskribatzen du onela: «Penitenziak kentzearen gañean, Nobiziaduan sartu zanezik izan ditu nai ainbat eramankizun, eta abadesak agintzen ziona egiten bazuen ere umiltasun andiaz, lizenzia eskatzen izan zan leiatua, baña, alferrik, zeren abadesak beti ukatzen zion, edota bere Konfesoaregana bialtzen zuen, eta onek Abadesaganana.

»Eta zeren berotasun oetan askotan artzen zuen gorrotoa bere buruaz, Jainkoaren kontra egin zituen utsaldiakgatik eta aren urrikaltasunaganako eranzuera txarragatik, suertaldi oetan bere miña izaten zan areagoa, bere begietako negar ugariak esateraño, Konfesoareak abadesagatik, eta abadesak konfesoareagatik galerazitzen ziotela Jainkoaren kontra egin zituen ofensak bere gorputzean bengatzea». Gis-onetan sakrifizio garratzagoa egin, eta irabazi andiagoo ateratzen zuen.

Baña bertutean aurrera zijoan bitartean, etsaiak, aingeruen itxuran jarri, eta Ebanjelioaren erarako biziera artatik atera erazi nai zukean. Eta nola anima justuak ez diran engañatzen ezpada bertuteen antz edo itxurarekin, gogaitkarri bururatzen zion, kanpoan gauza andiagoo egingo zituela Erljioan baño. Sinisterazi nai izan zien bada, non bere animak irabaziak arkitu uste zituen, kaltartua geratzen zala; zeren bere orazioa kanpoan, egunean zortzi eta bederatzi orduan luzatzen zan, eta etzala iru ordutik igarotzen komentuan, non mortifikazioak geitu bearrean, bere gorputzaren hilleraztean atzeraka zijoan: eta ala zijoala ebakiaz orazioaren eta penitziaren arako ego bi, zeñakin Zeruetako Erreinura egatzen dan, eta orregatik ezin jarrai zezakeala, uts egin nai ezpazuen, artu zuen bidea, bada bertutean aurreratu bearrean, atzeraka zijoala.

Egun batzuetan iraun bazioten ere burutazio txar oek, geroenenean ere gañ artu zien Josefak. Oezaz baliatu zan egiñal geiagooz Jaunari eskatzeko, Erljioako bizibidean irauteko grazia eta indarra eman ziozala, eta tentañi au Konfesoareari agertu zion, eta onek esan zion bada, etsai gaizto ark ondasun andiagooaren itxurarekin Erljioako aberastasun estimaga-

rrietatik urrutiratu nai zuela, baña Erljioan egingo zuela ditxa paregabeaz Jaunaren borondatea.

Gerra onetan etsaia azpiraturik, mugitu zion beste bat, eta gerra berri au zuzentzen zan, Nobizi au bere Jabeak ipiñi zuen lekutik, au da komentutik atera-erazitzera. Jakintsu eta zelo andikotzat zegoen gizon bat asi zan aditzen zituen zenbait gauzi sinismena ematen, eta onela Josefaren espiritua ona etzalako zañ txarrak ematen: eta gero geiagoko gabe kontatu zion Valladolid-ko komentu nagusiko Abadesari aditu eta sinistu zuen guzia. Esan zion Josefa bere nobiziadua amaikagarren illean Santa Klara-ko komentutik Mojak bota zutela, eta jaten zuen guzia ikatz biurritu errebesatzen zuela. Itxura añ onetako testigu edo lekukoari ez sinistea bidegabe-keri eta irañ andi bat egitea zala uste izan zuen Abadesak; eta bereala eskribatu ziozkan Santa Cruz-ko Abadesari bere espaasunak gis-aietako nobizia bat nobiziaduan arteaz arritzen zala, agertuaz, bada, gauza bearra zala nobizi oni profesioa ukatu, eta egindako okerra zuzentzea.

Santa Cruz-ko Abadesa karta onek biziro estutu zuen, zeren onela-ko gauzarik nobiziagan arkitzen etzan, eta guzia gezurra zala zekien, eta onegatik miñ zuen Komentu nagusiko Abadesak testigu palso oni sinistu baño len bera ez aditzea. Baña Valladolid-ko Komentu nagusiko abadesak gero Josefaren konfesoareagandik egia ongi jakin eta asmazio txar aiek egin zioten mella burutik kendu, eta nobiziaren etsaiari federik aman ezpalio obeto egingo zukeala ezagutu, eta onen profesioa opa izan zuen.

Kontra egite au etzan izan añ ixill eta gordea, non Josefa Logroñon amabost illabeteen bere etxean iduki zuen D. Diego Sabandok jakiñ etzuen; eta argatik eskribatu zion Uri artatik Santa Cruz-ko abadesari karta bat, ziola: «Jakin nuenean nere Arreba Josefaren kontra zetorren ekaitz gogorra, ezagutu nuen nondik zetorren tiroa, eta lenengoan goibeldu banitzan ere, oni miñgarri izango zitzaiolako, gero farra eragin zidan, bada baldin Inkisizioaren aginduz amabost illabeteen nere etxean egon bazan, izan zan bere bertute segurua obeto progatzeko. Eta au ala ez izatera, Uri onetako Komentuak etzuten deseaten zuten ainbat deseatuko Josefa, ez nion ere nik lagunduko oni Azkoitira, nere etxea pozik utzita. Eta au Azkoitira nerau nitzala bide joan zan, onen laguntasun maitagarrria utziaz: zeren neritzan ezen, etorri zan bezela etorri, eta obe zala bear zan honra guziarekin bereetara biuritzea. Inkisidore Jaunak eskañi baziozkaten ere beren etxeak, (bada dan bezelakoa izan ezpalitz onelako eskañtzarik egingo etzioten) ez nion utzi, esan dedana zala bide. Eta azkenik, Andrea, gai onen gañean hitz egitea, ofensazat daukat».



Au zan egiten zuen iritzia Sazerdote Jaun ark nobiziaz, zeren ama-bost illabete bere etxean egin zituenetan bere espiritu andia ondo begiratu eta ikusi zuen: eta onelakoa zan bere Konfessore Aita Juan Bereiarzak egiten zuena ere bada garai artan Santa Cruz-ko abadesaren karta bati eranzun zion esanaz: «Eman begiozka, eskerrak Jainkoari, Josefa Komunitate santu orretako alabatzat esleitu duelako». Eta onelakoa azkenik izan oi da Jainkoaren esku ongillea, zeren gizon batzuen asmo dollorretatik bere serbitzarien izen on eta sona gordetzen duen.

BIGARREN BURUA

ONEN JARDUNKINTZA JAKIÑAK, ETA BERE NOBIZIADUKO ZENBAIT GAUZA BEREZI.

Bere Maestrak agintzen ziozkan nobiziaduko beargaiak osoro egiten zituen, eta eginkizun gabe arkitzen zanean, bere arreta guziak oraziora zuzentzen zituen. Zeldan bakar zegoenean, oraziorako eresi añ guzizkoak oi zetozkion, non belauniko jarri eta Jainkozko gauzetan pensatzen luzaro egotera beartzen zuten. Gauaz ere deseo oek loa galerazitzen zioten; eta argatik otoitz-aldi labur bat egiteko asmoaz jaiki oi zan; bañan onen asieran beregandik irten, eta Jaunagan gozotoro kordegabetua geratzen zan. Suertaldi batean Santisimoaren lanpara itzalia zegoelakoan jaiki zan, eta egiaz itzalia arkitu, eta deretx onekin Jaunaren aurrean orazioa aurrera eramatea iritxi zuen. Beste gau asko igaro oi zituen bere zeldan bizkarrean gurutze eta barruan arantzazko koroa bat zituela belauniko jarri eta kordegabetuta.

Denbora artan komentuan zegoen Ama Engrazia Kristorenak kontatzen du, ezen egun batean goizeko lauretan joan zala Abadesaren aginduz Josefa-ren zeldara, eta an arkitu zuela oso Jainkoagan kordegabetua, zutik Loiola-ko Etxe santuronz begira, eskuak gurutzetuta, arpegi alaiarekin, eta era artan egon zala bezperako amarretatik goizeko ordu artaraño.

Aita Berreiarzak, Josefak orazioan izaten zituen mugida eta samurtasunen berri ikasirik, eman zion konseju au: *Orazioan etzedilla beñere irten Abadesaren agindutik. Onelako zaleak barrunda zituenean, eman zegoia aditzera bere Abadesari; ark nai zuena eta nai zuen bezela egiteko, eta ark agindu arte egon zedilla beste Mojak zeuzkatzien erregletan, baita oiean egotearen gañean ere.*

Nobiziak konseju au leialki bete, eta guzian Abadesaren agindua eginañ bizitu zan. Baña Abadesak eman oi zion goizean ordu bietan oraziora jaikitzeo eskubidea, non eta miñez etzegoen, edo guziz eroria: orregatik Erljioak artarako sinalatuak dauzkatzien bi ordu eta erdiak baño lenago, bi ordu bere kontenplazio edo Jainkozko gauzetan pensatzen igarotzen zituen. Egun orietako batean gure Josefa goizeko ordu bietan jaiki zan; eta bere serbitzariaren, orazio aurreratuz Jaunak zer atsegin zuen ezagutzeko, argi zerukoa Abadesak izan zuen; eta onek berak eskribatzen du: «Esna edo logabe nengoan (dio) goizeko ordu bietatik aurrera, eta ikusi nuen nola iruretako garaian argi guziz andi, argitsu, eta eguz-



kiaren gisako bat etzindegitik koruronz igarotzen zan. Erlijosia bati deitu, eta esnatu nuen; baña pauso otsik sentitzen etzan. Goizean Erlijosia guzai galdetu nien, eta ordu artan inor ere jaiki etzala, eranzun zidaten. Gero gure Josefari galdetu nion, ea non ordu artan egon zan, eta esan zidan, gure Jaunak korura deitu zuela, nik argi andi hura koruronz igarotzen ikusi nuen ordu artan bertan».

Abadesa oartu zan bere Nobiziaren kordegabetzeaz, zeñak komun-kiro orazioan izaten zituen; baña saiatzen zan ez barreatzera eta ez-ikusi bezela ere egitera, eta onetarako Josefari lo gozo artatik esnaerazitzeko txit polliki eta arreta guziaz bere habitutik tiratzen zion.

Jainkozko gauzetan pensatzen zegoenean etortzen zitzaizkan gogoeta eta samurtasunaz bere konfessoreak eskribatzen du onela: «Belau-nikatu orduko jartzen zaio begietan Jainkoaren ontasun ondogabearen ezagüera, onen mesedeen anditasuna eta bere eranzuera txarraren iger-mena: eta emendik jaiotzen ziran bere negar malko añ ugariak, zeñaz bere arropak eta zegoen lekuko solaidua ere bustitzen zituen. Bere biotza añ sosegugabe dago, non argiro aditzen diran golpeaz lertu bear duela dirudien; eta kolpe oek geratzean, iziotzen da bere biotzean berotasun bat, añ andia, non bearrik bazan, arropak lasaitu bear izaten zitzaizkan. Berak ezin lasaitu dituenean, Abadesak egiten dio beargai au; bada askotan esan dit, añ beroak egoten dirala bere arropak, non eskua erre lezakeen».

Au, Abadesak konfessoreari kontatzen zion denboran, beste mojak ikusiaz gañera segurutzen zuten ezen onelako gertaldietan askatu oi zio-tela bere gorontza, eta bere bularrak eta arropak brasa biziak bazeuzka-kean bezelako berotasuna botatzen zutelak. Oek zirala Jaunak bere serbi-tzariaren espiritua orazioaren sutegian ezio eta urtutzen zuelako siñale agiriak.

IRUGARREN BURUA

BERE PROFESIORAKO BOTOAK ETA LENAGO IZAN ZITUEN NEKEAK.

Onela zeraman aurrera bere nobiziadua Josefak, eta siñalatu zan milla seireun larogeita amabigarren urteko Otsaillaren amaikagarren eguna, bere profesiorako moja guzien iritzi edo botoak bezpera ondoan artzeko. Nola Nobiziak egun au bere guzizko jaierezko eguntzat iduki bear zuen, goizeko amaiketan eskatu zion Abadesari baimena, Jaun Sakramentuari agur onak egitera joateko, besteak erreztazera zijoazen bitartean. Baña egon-aldi laburra asi zuenak, luzatu zuen arratsaldeko irurak arte, bada onetan Erlijosak bezperetara joan, eta Abadesak Nobizia falta zala arkitu zuen, eta Abadesa onek ara nola kontatzen duen egun artako gertakaria: «Profesiorako bere alderako iritziak erran ziranean, arkitu nuen bezperetan onen palta; irten nitzan zer izango zan zañak jota, onela beste erlijiosak oartu etzitezen: arkitu nuen oso kordegabetua eta bere-gandik irtena: tiratzen nion arropatik, batera eta bestera ekarriaz, mugit-zen niozkan beso eta eskuak, eta deitzen nion bere izenez; baña guzia alperrik. Orregatik geratu nitzan bere alboan, bakarrik ez uzteagatik: tira-tzen nion inoiz arropatik, eta au asko etzala ikusita, ixiltxorik eta besoan kolpe txiki bat emanaz, esan nion: *Ea biur zaite zeregan*. Hitz oek esan ez al nituen, begiratu zidan: eta ea zerk beregana biurtu zuen galdetuta, eran-zun zidan: deadar andi bat aditu zuela. Egia da nik hitz oek Abadesak bezela esan nituela, eta ala obedienziaren egitekoa zala adirazi zuen».

Nobiziak bere espirituaren siñale añ onak eman zituelako, erlijiosak profesiorako aren alderako beren iritziak ematera makurtu ziran; baña au zenbat profesiora urreratuago, ainbat obeto agertu zuen Jaunak geiago ta geiago garbitu nai zuela barrungo eta kanpoko neke-trabaju askorekin. Jaunak garai onetan eman zion etsaiari gogorkiroago Josefa persegitzeko eskua. Atsedetera oiera joan, eta askotan sentitzen zuen gauerdian bere zeldan bele asko egan bazebiltzan bezelako ots bat. Beste gau batean ora-zio-aldi luzetik oiera zijoala, bere oiaren erdian abere izugarri bat, eta bereala leiotik saltatu eta ezkutatu zan. Beste gau batean ere oiera zijoala, ikusi zuen bere oiaren barrunen suge mortal bat, eta bereala gurutzearen siñalea eginta, andik zijoala, Trinidad eguziz Santuaren izenean agindu, eta ala egin zuen, leku artatik bereala ezkutatuaz.



Demonioak ez bakarrik onelako zotiñak ematen ziozkan, baita ere gaitz-tratatzen zuen, kolpe gogorraz gorputza elbarritua eta zauritua utziaz, goizean oraziora jaikitzeke. Gau oetako batean autsi zion ortz bat eta beste askotan kiskaltzen ziozkan bere begiak, ainbesteraño non erlijiosak errukitzen ziran.

Mingarriago zitzaion Josefari etsaiaren trataera gaizto au erlijiosen aurrean izaten zanean, zeren oek naigabe guzizkoa artutzen zuten. Garai artan Abadesak Aita Berreiarzari eskribatu zion karta batean, dio: «Egun gutxi da (esaten du) guziok alkarrekin orazioan geundela, etsaiak bota zutela lurrera, zalapart andiaz, eta arrastatu zutela koroan gure nobizia Josefa. Zalapart hura guziok aditu genduen. Argi bat eskatu nuen, eta lurrean ezarria zegoen. Bi erlijiosen artean oiera eraman genduen, onela komunidadeak orazioa jarrai zezan; eta zeren ito nai zutela zirudien. Onelako suertaldietan ipiñi oi diot San Ignazioren Erlikia, eta esan oi diot bere orazioa eta andik laster bere oneratzen da: ala gertatu zan orduan».

Karta onetan bertan geitzen du Abadesak gañera: «Atzo goizean esan zidaten, Nobizia bost eta erdietako garaian oiean zegoela guziz estu, izan oi dituen tormentuakin. Sartu nitzan bera ikustera, eta gajoa hitzik esan al gabe zegoen eta guziz nekatua. Etzegoen beste erremediorik, ezpada padezitzen ikustea, eta Erlikia ipiñi banion ere, eta ur bedeikatua bota, bere artan zegoen. Gogoratu zitzadan Aita Andrea Zupidek esan zidana; au da, onelako gertaeretan agindu negiola etsaiari gure Jaunaren izenean, utzi zegiola kriatura oni: baña nola Nobizien Maestra an baizegoen, onen aurrean egin nai izan ez nuen: eta bakarrik nere barrunen esan nuen bi aldiz: Jesukristo gure Jaunaren izenean agintzen nietelata, urrutira zitezela andik. Bigarrenean indar geiagorekin esan nuen: utzi zegotela, bada Jainkoaren izenean agintzen niela, zijoazela beron lekura, au da, infernura. Oek aienatuta laster beregandu zan, eta guziz gaitz-tratatu geratu bazan ere, komulgatzera jatxi zan».

Garai artan zeramazkien neke-trabajuai egozten zitzaizten beste batzuek, eta konfesoreak eskribatzen du onela: «Gau ta egun bere giltza edo juntura guzietako oñaze guzizkoak daramatzi. Askotan esan dit, zerrarekin burua ebakitzen diotela, uste duela; eta beste askotan, bularretik bizkarrera lanzada baten gisako tormentua sentitzen zuela».

Beste beldur batzuek geiago estutu zuten, bada konfessore berak kontatzen du: «bere eskrupulo edo kezkek dira, (dio), beragan arkitzen dan guzia gezur eta itxura engañagarri utsa dala; eta ni, eta onekin tratatu duen guziak engañatuak bizi gerala. Au niri sinisterazitzeko egiñal guziak egiten ditu; baña kostutzen edo logratzen eztuelako, txit estu geratzen da.

Joaten da Abadesagana gauza beronen billan, eta onek ere eztio lekurik ematen. Eta orduan sosegatzen bada ere, biurtzen da askotan beldur oetara, esanaz, Jainkoaganako betiko eskergabekerian berrogei urte igaro zaizkit, eta aurrerontzean bera serbitzeko eta amatzeko biderik arkitzen ez det; zeron konfesoreak bere engañoak sinistu nai etziozkan. Aita Berreiarzak beldur-aize oen berri jakin zuenean: eranzun zion onela: Tentazio au andi eta perilltsua da. Onelako suertaldietan eranzun bear dio tentatzalleari, naiago duela bere Abadesa eta konfessoreari sinistuz uts egiñ, (bada onela beñere uts egiten ezta) aren burutazio txarrak sinistu baño».



LAUGARREN BURUA

JOSEFAK BERE PROFESIORAÑO ZERAMAZKIEN BESTE PENAK.

Nobizi onek ainbeste neke-trabaju jarraitukoakin bere gorputza guziz eroria bazedukan ere, tormentu andiagoak eramateko bere espiritu sendoak laguntzen zion; eta argatik eskatzen zien Abadesari eta konfesorari bere gorputza geiago ta geiago kastigatzeko eskua. Baña ematen etziotela ikusirik, egun batean eskatu zion konfesorari utzi zegiola bost edo sei ontzako bronzeko gurutze bat lepotik ixekita erabiltzen. Konfesoareak utzi zion eta ala oi zekarren beti, baña progatzen zuena zan, izanik gurutze hura berez añ ariña, nola nai ere, Jainkoak ala naita, guziz pisutzen zala.

Batez ere Ama Santísima Doloreetakoaren egunean, komunitadearen orazioko orduak berotasun guziaz bukatu, eta sentitu zuen pisu andi bat, erlijiosakin komuniora alderatzea galerazten ziona. Gero Prima, Tertzia eta Sestako orduetan neke onek an ziraun, eta Nona asitzean ainbesteraño geitu zan Gurutzearen karga, non, gorputza makurtzen zion. Nona bukatu, eta Erlijiosakin bazkaltegiara joan bear zuenean, uste izan zuen, ezin mugi zitekeala ezezik, erlijiosa guzien aurrean lurtean kolpe andi bat eman bearra zala ere; zeren mendi bat bizkar-gañean bazeukanean bezela, gurutzeak pisatzen zuen. Oi ez bezelako gauz onek biziro estutzen zuen, eta argatik otoitz labor batean Jaunari eskatu zion, arren! bere borondatea bazan, utzi zegiola erlijiosai jarraitzen, eta ala bere orazioren frutua iritxi zuen. Alabañan elizkizunak bukatu, eta Abadesak esan zuenean: *goazen bazkaltegiara*, karga hura bereala arindu, Eta nobizia ezeren eragozpen gabe geratu zan.

Nobizi au guziz igaroa geratu zan, arako erri guzia eta auzo-erriak arritu eta izutu zituen ezbear gogor, bere nobiziaduko denboran gertatu zana aditu zuenean. Parrokiako Bikario D. Franzisko Eizagirre, gau batean bere etxera zijoala, bere elizaren ondoan esku gaitzkille sakrilegoren batek illotzik utzi zuen; bada, amalau ta geiago estokadaz, bere gorputzean arakintza bat egin zuen. D. Franzisko au bertute andietako apaiza zan, eta bere Arzai-beargaietan guziz arretatsua. Prenda eder oekgatik, eta Josefaren konfessore izan zalako; onezaz bear zan estimazio guzia egi-ten zuen. Nobiziak anima onen alde bere obra on guziak gure Jaunari

eskañi, eta au ill zanetik laster, joan zan gau batean oiera alako eriotz supituko eta gogorrean bere anima salbazioko portu edo zeruetaeo Erreinu-
ra iritxiko ote zan beldurrarekin. Naigabe eta pena onekin lo kuluskak artu zuen, eta onela zegoela, agertu zitzaion apaiz jaun hura arpegi grabe eta alaiarekin, ornamentu ederrez jantzia, eta bere eskuetan Jaun Sakramentatuaren kopoia bezelako bat zuela. Agerkera onek eman zion atsegiñ-kontentuak esnatu zuen, eta agerraldi onek eman zion barrungo atsegiña egun oro argatik erregutuaz, bere bizi guzian gorde zuen.

Bete zan nobiziaduko urtea, eta Komunitadeak erabaki zuen D.^a Maria Ignazia Hurtado Mendozakoari profesioa ematea, milla seireun, larogeita amabigarren urteko Pazkoa Erresurrezioko irugarren egunean, egun batzuez atzeratuai gure nobiziaren profesioa. Baña Jainkoak, atzerapen gabe Josefa profesatzea nai zuela, agertu zuen, au izan zediñ bere Erlijioko boto edo promesak Santa Cruz-ko komentu berrian beste iñork baño len eskañtzen ziozkana.

Bere lagun Nobizia profesatzeko siñalatuta zegoen egunean goizeko lauretan, bat-batetan etorri zitzaiozkan biotzeko garratzasun guzizkoak; eta oni zerbait laguntzera erlijiosak joan ziran. Konfessorea deitu zuten, eta onek bereala Elizakoak eman ziozkan, onelako txarraldiaren indarrez laster bere bizia emango zuelakoan. Biotzak, bere lekutik irten, eta kolpe gogor eta agiriak ematen zituen, oieko estalkiak jasotzeraño. Biotzaren ibilli oni laguntzen zion naigabeak illarena zirudien; eta ala hitz onak esaten Abadesa bera ari zitzaion. Abadesak esan zion, eska ziozala Jainkoari onelako naigabe miñak zerbait arintzea; baña onek eranzun zion: *Ai Ama! au gorputzaren zuzpertasunean pensatzeko garaia ezta, baizik animarenean*. Agoni oek iru orduan iraun zuten, eta bitarte onetan izan zan profesatua Josefa, Jaunari bere promesak egiñaz arako munduarentzat illak dauden anima onak egiten diozkatzen bezela.

Elizakoak eta profesioa artu ez al zituen, bizitza berri bat artu zuela zirudien, edo sendagarri oekin sendatu zala gaitz-aldi artatik, bada txarraldi hura ez ainbeste zetorkion gorputzaren umoreetatik, nola Jainkoaren amoretik. Abadesak eskribatu zion gertakari au Aita Berreiarzari, eta onek eranzun zion onela: «Profesioan agertu zuen Jainkoak ezen au mundurako illa nai zuela; eta biotza bere lekutik irtetea, Jainkoak beretzat artzea zala». Eman zaiozkagun eskerrak bere Majestade Jaungoikozkoari, Erlijio santu onetan Josefa beretzat nai zuela obraz agertu digulako.



BOSTGARREN BURUA

BESTE PENAK ETA ZERUKO MESEDEAK.

Jesus maitagarriaren Pasio Santuari jaierrarik andiena zion: ala Jaunak berak naigabe eta tormentu andietarako presta zedilla esan zion. Aren amore eta dolozko pauso jaungoikozkoetan Josefak zer igaro zuen esatea, erraz ezta. Baña Jesusen penak eta amoreak indarra eman zioten. Gurutze eta nekeen artean mesede eta erregaloak beti zituen. Santiago gure Patroi Apostoluaren berezkirozko debota txikitandik izandu zan, zeren onek Jaunaren amorez Apostoluen artean bere bizia lenengo eman zuen, eta bere biotzeko su andi hura emateko eskatzen zion. Santuak, bere bezperan zeruko bisitarekin etorri, eta erregalo Jainkozko bat egin zion, eta bere debota Josefa-ren biotzari amorezko su andi bat sartu zion. Saieta batek bezela oñazez biotza eritu zion; baña miñ atsegiñ eta geiago nai zukeana zala, Josefa maitatuak zion.

Ama Birjiñaganako jaiera amoretsuak mesede txit andiak ekarri ziozkan, batez ere bere festegun siñalatuetan. Onek eta bere Seme Jainkozkoak era askotara beti lagundu zioten: eziñ esan ala mesede siñalatu; zeruko erregalo gozo, eta doai andi egin ziozkaten. Denbora oietan bere Esposo maitetsu Jesus-ek bere kordegabetze luzeetan zeruko argi eta zuzen-bide jainkozkoak, eta bertute guzian dotriñako ikasbide, bakarrik bera amatzeko bear zituenak txit ugari eman ziozkan. Bertutearen bidean egun oro eta aurrerago zijoan, eta Josefaren ditxazko anima lurreko gauzetatik aldegiñ, eta Jainkoaren amorezko su-bizian izio, eta beti garbiago egiten zan.

Josefaren ejemplo eder eta santutasun andia ikusita, beñ eta berriz komentua on andirako Abadesa egin zuten, eta Jainkoaren mesede eta mirari ondo agiriakin txit zuzen eta ederki era guzietara komentua sei urtean gober-natu zuen. Lurreko gurutze-pena beti bezela, urte orietan izan zituen: eta orien neurrian Zeruko konsuelo eta erregaloak izandu ziran. Erreglak ondo gordetzeko, eta Jainkoaren atsegiña gauza txiki eta andietan billatzeko, bear ziran ikusbideak, hitzakin baño berak egiñaz, obeto beti eman zituen: eta orrela guziak zerutarren, edo Aingeruen gisa, santutasun egun oro andiagoan bizi ziran.

Gauza guzian miragarriena da Josefaren egunetan begiz Santa Cruz-en ikusi zana. Bere Abadesatzako sei urteetan Santa Brijidaren erreglak nai duen ogeita amar erlijiosen kopurua bete edo kunplitu, eta bear zan

bezela komentua egiñ-egiña geratu zan: lenagoko lagun santa biak asi zutena, Josefa zorionekoak ditxa andiaz bukatu zuen. Elizan, eta eliza antolatzeko bear ziran apañgarri asko eta ederrak batu ziran. Alakoa zan Santa Cruz-ko santidadearen Zeruko usai gozoa: eta orren ondoren alakoa zan Azkoitiko gogo on eta Etxe nagusietako ongille ugarien geiago ta geiago emateko leia santu esan al baño andiagoa. Ala ditxa andiz beteja Santa Cruz-ko etxea beti izan da: eta ezer gaberik, guziz bear asi bazan ere, Zeruko bandido ondo ugariak betiro ikusi ditu: eta oriekin Jainkoak adierazi eta erakutsi zuen, obra andi santa ori mirarizko asieran eta bere geituran berarena izan dala, bere gogokoa eta beraren kontura beti dagoena. Zori oneko era orretan, Josefa miragarria sei urtean Abadesa izan zanean Santa Cruz arkitu zan eta utzi zuen.

Denbor artan Josefa umillak bere santutasun fiña agertzeko golpe andi bi, bata bestearen ondoren artu zituen; eta bien sakrifizio edo ofrenda txit samiña Jaunari egin zion: bata bere konfessore guziz on eta ongille zintzo D. Ignazio Esandi-ren eriotza izan zan: bestea Aita Berreiarza Beneragarriarena: Josefak orien eriotza, preziatua, zeruko atea zala, onda zekusan; bada biak Jaunaren adiskide laztanak ziran; baña nola berari zerurako bidea añ ederki biziera guzian erakusten zioten; biak ara joan, eta bakartasun tristean beñgoan utzi zuten. Orien animak Jabe Jaungoikozkoaren eskuetan osoro utzi, eta beraren argia eta aziertoa bere biotz guziaz eskatu, eta bere eskuetan utzi zion, eta laster Jaunak eskua eman zion.

Aien ordean Aita Andres Zupide, Kolejio onetako Erretorea sartu zan, eta biak eskribatu zituzten Paper edo Erregla, eta gure Josefaren gauza miragarri guziak onek artu eta gorde zituen. Bear asko egindako gizon nekatu eta urteetan aurretatua zalarik, Josefa-ren anima txit gogotik bere kontura artu zuen: oñez eta nekez emendik Santa Cruza igo oi zan. Onek zelo eta karidade guzia Josefaren onerako beti erakutsi zuen, eta txit asko Jainkoa serbitzen eta amaten lagundu zion, onen bertute eta Zeruko mesedeetan ikusi zan bezela. Gorputzeko gaitz eta animako penak eta deabruaren tentazio eta persekuzioak, esan diran gisa, beti oi zituen.

Oien artean geien estutzen eta naigabetzen zutenak bere barrenen eta irudipenean tormentatzen zuten: Jainkoaren grazian ote zegoen, bere orazio, ejerzizio, penitentzia eta komunioetan engañatua ote zegoen: etsaiak edo bere griñak engañatu eta itsuturik utsegiten ote zuen, edo bere Jabe bakar maiteari ofensarik egiten ote zion, eta bere pauso eta deseotan ongi edo gaizki ote zebillen? Beldur estu eta biotzeko arantza oiek



indar biziagoa bere animan artzen zuten, zeren illuntasun triste eta argiaren faltak agonia samiñ batean sartuta, eziñ orretatik irten oi zan. Jainkoak guziz asko nai zion, eta beldur santu onekin egiazko umiltasun seguruan gorde nai zuen: orrela Zeruko mesedeak irabazi geiagorekin artzeko prestatzen zan.

Bere orazioan Jainkoaren Ontasun eta bere ezerezaren itxaso ondogabean ditzazko anima au ondatu oi zan. Orazioan beñ txit biotzetik eskatu zion Jainkoari umiltasun egiazkoan obeto ondatzeko, arren! Judasen oñpean bere burua, zegokion lekura bezela, botatzeko, Judas infernuan zegoen lekura eraman zezala. Baña Jaunaren kontrako añenekorik an ez aditzeko kondizioarekin. Eraman zuen Jaunak bere Josefa espirituan Judas zegoen bere umiltasuneko leku izugarri artara, non ezin konta alako, eta arritzeko gauzak ikusi zituen; baña Jainkoaren kontrako mada-rikazio izugarriak enzutetik gorde zuen. Onela Josefa-ren umiltasuna, berak gogo zuen gisa Judas ditzagabearen oñetaraño bere probetxurako jatxi zan.

Josefa-ren biotza Jainkoaren amorean situago egiteko, eta bakarrik bera billatzeko, beti zegoen prest, zernai bidetatik bera arkitzen zuen, eta aren ontasun gozoa eta borondate maitagarria guzian egiten zuen. Zebat eta esaiak berea illuntasun beltz eta beldurrakin atzeratu nai zuten, ainbat seguruago umiltasunean gordetzen zan, eta andik Jainkoak beregana deitzean, ariñoago igarotzen zan. Ala trabajuakin nola erregaloakin berdiñ beregan umillatzen zan: argatik alako frutura ateratzen zuen. Gertakari guzietan beti zan bat, eta gauza bat billatzen zuen, edo Jaungoikoaren atsegiñ garbia, eta atsegiñ orrek Jainkoagana igo, eta aren borondate gozoz betetzen zan.

Josefa ditzazkoaren bizitzak ederki dio, onen zeruronzko igoera edo kordegabetze gozoak garai onetan alde-aldean betikoak zirala; eta Abadesak, ondo zekusenak bezela zion: bi, eta iru egunean utziko bazitzaiokean, arri baten gisa sorturik, Jainkoarekin beti anbat egongo zitekeala. Baña obedienziaren betiko mirari arrigarria zan, Abadesak non nai berekiko agindu orduko, Josefa beregan bereala biurtzea. Obedienzia umillaren erregla au da; Ebanjelio edo fedekoa bezela egiazko espirituaren siñalerik seguruena eta Espiritu Santuak bide onetatik Josefa-rena beti zuzendu zuen: Jesus bere Esposo Jainkozkoaren antzekoa bezela: eta argatik Jainkoari añ atsegiñ egiten zion: zuk ere Jainkoaren gogoko dana beti egin nai badezu, obedienziako bide zuzena beti billa zazu, zere borondatea ukatu, eta Jainkoarena beti egiteko.

Jesus onaren, bere Ama guziz Santaren eta Santuen agerraldi ikusaldi eta ikasbide eder asko denbora orietan eta etsaiaren tentazio eta penen artean izan zituen. Alako batean, sangratuta nekez zegoela, deabruak kolpeka arrastatuta, oietik bazter batera bota zuten: ots andi eta zalapartara erlijiosak joan, eta kordegabe edo illa bezela topatu zuten, eta andik puska batera, beregana zanean, onelako esturetan oi bezela ur bedekatua botatzea eskatu zuen. Abadesa, eta besteak deabruen figura itxusi izugarriak ikusten zituzten. Baña Josefak bere kordegaltze gozo batean Ama Birjiña zoragarria edertasun guziaz jantzita, bere aurrean ikusi, eta bere eskuan koroa guziz baliotsu bat erakutsi zion; baña guziro osatua etzegoen: arekin Ama maiteak deitzen zuen. Aita Zupidek esan zion, biziera santu batekin koroa osoro buka zezala, bere buruan aitzeko, eta amorez gal-dasturik geratu zan.

Baña infernukoa Josefa-ren itxuran edo onen jantziaz armatu zan, eta Abadesari esan zion: Aita Zupideri eskribatu, eta esan ziozala, komentura eta Josefagana etorri etzedilla, eta ez agertu ere, zeren engañatua zebillen. Ama Abadesa zintzoa arriturik zegoen, eta ikusia eta enzuna ezin sinistu zuen, eta beragatik Konfessoreari kontatu zion. Aita Zupidek deabruaren gezurra ezagutu, eta etorri, eta iruren artean gezurra argiro ikusi zan. Onelako tranpakin Satanas-ek irurak irabiatu nai izan zituen. Gero Jesus maiteak bere Josefa animatzeko erregalo eta ikusaldi amorezkoak egin ziozkan. Era askotan agertzen zitzaion, bertutearen bidean betiko seguratu zuen; orazioan eta tentazio eta penetan bear zituen ikasbideak eman ziozkan.

Erregalo esan-al baño andiagoa kordegabetze batean Jesus onak egin zion. Josefak txit deseaten zuen, eta biotz biotzetik eskatzen zion bere Santa Cruzen, Esposa maite, edo anima garbi asko bera beti serbitzeko sartu zitzala. Kordegabetze onetan Jaunak bildots zuri eder batzuek beren leku seguruan sartuta erakutsi ziozkan: eta onela donzella garbiak komentu artan sartuko zirala esan zion: ala Josefak urtebeteren epean bederatzi nobizia, Esposo Jainkozkoa serbitzera etorri ziranak, etxe santu artan habitua artzen ikusi zituen; eta aren errebelazio edo zeruko argitasuna osoro bete zan.



SEIGARREN BURUA

JESUS ONAK JOSEFA MAITEA NOLA ALAITU ZUEN.

Jaun amoretsu onen erakusaldi Jainkozkoakin biziro argitu, eta aurreratu zan zerurako bidean: beraren amorezko esku-ongille ederrak egoera txit eztsitu batean anima esleitu au sartu zuen. Lenengo biotzaren salto eta ots miragarriak orañ guziri sosegatu ziran, eta Josefa-ren espirtua gorago igo, eta pakezko Jesus-en biotzeko zeru Jaungoikozko, eta soseguan sartu zan. Emen beraren, Ama maitearen eta Santuen argi eta dotriña oi ez bezelakoak, baña txit barrenen eta espirtuan meekiro txit artzen zituen. Lengo bere illuntasun, animako beldur eta tentazioetan bere grazian anima autu au segurutzeko mesedezko erregalo batean argitasun agirian esan zion: *Nere Erreinaua nik zugan nai det: antziñako sugē edo deabruak naiagatik, zuri gaitzik egiten utziko eztiot.* Mesede oiekin biziro umillatzen zan, eta orduan areagoak artzen zituen.

Beste beñ esan zion: *nere urrikaltasunak zure miserien gañean ixuri nai ditut.* Besteetan: *nere atsegiñak zure animan iduki nai ditut. Zure miseriak nere urrikaltasunen jarleku dira.* Josefak bere beldurrakin esan zion: Jauna, nere biziera epel otz onekin kontentu ez nago: eta Jaunak esan zion: *ni kontentu banaiz, zer geiago nai dezu?*

Bata bestearen ondoren Fundatzalle Maria Teresa Gurutzekoa, abadesa maitea, eta Aita Zupide Konfesorea, Jaunak eraman ziozkan, eta umezurtz triste baten gisa bakarrik Josefa geratu zan. Bien animak gloriuz jantzita gero ikusi zituen. *Konzeption: Jainkoaren Etxe onen kargua zergatik artu nai eztu?*, abadesa illta, kordegabetze batean Josefak argiro esan zuen. Kordegabe zegoen Josefa, eta orduan alakorik jakin gabe Ama Konzeption etorri zan. Onek Abadesa izan nai etzuen: baña Jainkoaren gaztigu onekiñ, eta guzien atsegiñ andiaz, bere aizpa zanaren lekuan, bigarren Fundatzalle bezela, Abadesa egin zuten. Onek ala komentua, nola bere Josefa maitea Jaunaren mesede eta mirari andien artean ederki, eta beraren eta guzien nai-erara sei urtean gobernatu zituen.

ZAZPIGARREN BURUA

NOLA AMA JOSEFA JAIERA EDO DEBOZIOAN ETA SANTUTASUNEAN AURRERATU ZAN, ETA NOLA SEI URTEAN ABADESA IZAN ZAN.

Birtarte onetan irurogei urteetaroz zijoa Josefa, eta Jainkoaren egiazko bidean beti; baña orañ geiago aurreratu zan: bere lagun santak bertute guzien ispillu bizi eder bat beragan ikusten zuten: santutasunaren argi ederrak aren barrengo espirtu garbiak, bere umilltasun, mortifikazio, pazienza, karidade, mansotasun eta Jaunaren amore garbi eta animen zelo eta erregla santuen neurri betean erakusten zituen, eta guziak zeruko ejenploen usai gozoarekin Jaunaren amore eta atsegiñean bere ondoren zekartzien. O eta indar zeñ eragille eta atsegiña duen santutasun aren edertasunak, eta orren ejenploak! Urte oietan bertuteen eta zeruko mesedeen mirari andi asko Santa Cruz-en, eta Josefaren egikeretan ikusi ziran.

Zortzi eguneko ejerzizioak fundaziotik Etxe santu onetan egiten dira; eta orietan Jainkozko espirtua berriro beti erlijiosetan sartu, eta Zeruko karobi baten gisa irazekitzen dira. Josefa-ren anima, ondo garbitutako ontzi bat bezela, iturri artan zeruko ur garbiz bete oi zan: eta erretzeko jaiotako egur igarra bezela Aita San Ignazioren su ta garrezko konsejio bizieta bere Jainkoaren amore garbian osoro urtu edo desegiten zan. Argatik Aita San Ignaziori beti jaiera berezikoa izan zion; baña geroago ta geroago biotz guziko estimazio eta erreberenzia, zerutik izan zituen argiak santuaren gloria añ oi-ez bezelako eta goratua azaldu oi zuen baña txit gogotik jarraitzen zion, eta Josefak nai bezelako santua zuen.

Onetan bere Esposo Jainkozkoak santu-justuen bide bi erakutsi ziozkan; oietatik zerura guziak zijozzen. Bide bat zabala, eta justu guzientzat jakiña, eta emendik geienak era askotara zerura zijozzen. Beste bidea txit estua, eta lureko justuen artean gutxiñat egiña; bide au zala anima txik santa, edo Jaungoikoaren amore guziz garbi, nasgabe, berekoi eztana zutenena, eta beren gogo bizi guziaz gauza guzietan Jaunaren gloria eta atsegiñik andiena bakar-bakarrik nai ta billatu zutenena. Ignazio bide onetatik bere biotz prestuenaz beti zuzen eta beti egunoro eta gorago igo zan, eta Jainkoaren onra eta gloria asmo eta gogo garbienaz billatu zuen; orre-



gatik Josefak txit beneratzen, estimatzen, eta santu askoren artean siñalatu bezela maite zuen.

Bere Ama Santa Brijida-ri, aragizko Serafin San Franzisko umillari, San Antonio Padua-ko miraritsuari, Emeterio eta Zeledonio martiri gloriatsuai jaiera txit andia zien: orien eta bere beste santu artuen egunetan eta beste askotan, zeruko mesede asko zor zizten. Illean beñ suerte onaz artzen diran Santuak in siñale miragarriak ikusi izan zituen. Santo Tomas, Elizako Maisu-aingerua, bere aingeruzko garbitasunagatik Josefak guziz berea zuen. Aren bezpera batean bere orazio moduaren gañeko beldurrak Konfesoari agertu ziozean. Onek santua guzirako Maisu zeñ andia zan eta orazioa ondo egiteko ikasbidea eska ziozala, esan zion: eta orra non Josefa ikustera Santua etorri, eta aurore guziaz esan zion: *Oraziorako gure Jaunagan Maisu txit ona daukazu, berak ondo erakutsiko dizu*: orrekin Santuak konsolatu zuen.

Dotriña onetan anima esleitu au obeto segurutzeko Jesukristok beñ esan zion: *Ni naiz zure Maisua: nik erakusten dizut: zurekin nago ni*. Josefak bere kezka oien artean esan zion: *Jauna, nere deseo oek beren atsedena non arkituko dute?* Eranzun zion Jaunak: *Nigan. Zer billatzen dezu? Bear dezun guzia nigan daukazu*. Erregalo Jainkozko oiekin biotza amorez irazakita, Josefa amorez eta mirariz bezela bizizan edo ill bear zuen. Jaunari bere su bizi onetan esan zion: *Onela, Jauna, nik ainbeste deseaten dedan eriotza laster etorriko da?* Eta Jaunak eranzun zion: *Nola ibaiak itsasoan sartu artean gelditzen ez diran, ala zure biotza bere zentro edo lekuan sartu arteraño geldituko ezta*. Beste beñ esan zion: *Nere amorez illko zera zu*. Onelako fiñtasun eta amorezko erregalo asko denbora oietan izan zituen.

Esan diran jaierez gañera guziz berezia zien Santiago Apostolu, gure Patroi andiari eta onen anai San Juan Ebanjelariari: Santiago-ri, zeren Ama Birjiñaren Seme estimatua bizitzan eta eriotzan izan zan, eta bizitzan Ama Birjiñak erregalatu eta eriotzan lagundu zion, eta Josefak bere bitarteko bietarako artu zuen. San Juan-i jaiera gozo bat zion, zeren Jesusen biotzeko ikasle erregalatuena, eta Ama Birjiñaren kutun preziatu, eta Jaungoikoaren Semeak bere ordeko seme laztan Ama Birjiñari siñalatu eta egin zuen. Josefa zorionekoak amore siñalatu onetan gusto txit ona zuen: eta zuk ere, nere irakurlea, Anaia santo bien jaiera gozo ori eriotz on batarako beti artu bear dezu.

Santu guzien doatsuen San Jose guziz maitetsuarekin Josefaren amore paregabea nork esan lezake? Jesus maitearen Aita-ordeko, eta aren Amaren Esposo egiazko doatsua bezela estimatzen eta adoratzan zuen, eta esanal baño zeruko mesede andiagoak aren eskutik artu, eta biotzeko

esker onak ematen ziozkan: bere Santua eta guzirako esku txit andiko bere bitartekoa zuen. Ama Birjiñak eta bere Seme Jainkozkoak Josefa-ri egin ziozkaten mesede eta erregaloak, eta Josefak orien ordañez egin zituen alegiñak kontatzea gauz andiegia, eta luzegia litzake: zerbait esan da, eta orrekin, labur bederen, geratu bearko degu.

Goimalla onetan zegoen Josefa, eta bere Esposo Jainkozko Jesusek Fundatzalle bien ondoren komentu ditxazko artako Abadesa egin nai zuen, eta erlijiosak orretan zeuden. Lenengo bere espirituari eskallera bat beñ eta berriz ikusi zuen: bost malla zituen, eta Jaunak ara deitzen zuen. Beldur zan Jaunak igotzeko agintzen zion: *baña Josefak esan zion: Jauna, goi orretara ni eziñ igoko naiz bakarrik: zuk igo nazazuke*. Egia da, esan zion, zu zerez eziñ igoko zerala; baña mesede ori nik ziri egiteko, nere Amari deitu bear diozu: bada orren bitartez animai nere graziak egiten diztet. Bereala beti bezela bere Ama maiteagana biurtu, eta aren mantupean seguru sartu zan. Abadesa egiteko egunak baño len Jesus onak Josefa-ren amorea iru bider esamiñatu zuen, San Pedro-rena bezela. Mendi goitu batera Josefa igo, eta galdetu zion eztiro: *Zenbat maite nazu?* Pensa ezazu Josefa umilla naitasunezko mesede onekiñ nola egongo zan. Eranzun zion Josefak: *Jauna, zenbat nai dizudan eztakit; baña Santu eta Aingeru guziak, San Migel eta nere Aingeruak ainbat amatu nai zindukedala bada-kit*. Galdetu zion berriz: *Zenbat maite nazu?* Eta Josefak esan zion: *Jauna, zure Ama guziz Santak ainbat*. Irugarrenean galdetu zion: *Zenbat maite nazu?* Josefak amorez urtuta, esan zion: *Jauna, nik amatu nai zinduzket, zuk zere Aita Eternoa amatzen dezun ainbat*.

Geiago ta geiago al bazezakean, bere Jabe bakarra amatu nai zukean. Josefak orduan ezagutu etzuen esamiña oriek Abadesa egiteko ziral; baña konseju Jaungoikoak bere erlijiosakin ori egiña zeukan. Laster jakin zuen, eta zoraturik geratu zan. Bere konfeso jakintsuaren bitartez, eta guziaz gañ Ama Birjiñarenaz bere ustezko desdixta ori erremediatu nai zukean; baña Jainkoaren asmoa bete bear zan.

Erregla, giltzak, eta Abadesaren beste siñaleak eman ziozkatenean, beregandik irten, eta bere ustez ateratzen zan. Alabak, eta bera aukeratzen zeudenak asko animatu zuten; baña bere Jaun maiteagana biurtu, eta esan zion: *Jauna, ni beargai onetarako ez naiz. Nik lengo bide umilla bear det; bestela nik guzia gaizki egiñ, eta zer kontu emango det?* Jaunak esan zion: *Beargaia ar zazu, bada zure lotsa andi eta umilltasunerako ori bera izango da*. Beargaia artu, eta Jaunak mirariz bezela korurako, eta bear ziran egiteko guzietarako bere urte aurreratu, gaitz eta nekezko argaltasunean ere, bere



esku eta indar mirarizkoa eman zion, eta amore eta intenziorik al zuen garbi eta santuenaz Abadesaren egiteko guziak egin zituen.

Bere beargaian duda, beldur eta kezka asko izan zituen; baña guzietan bere Maisu Jaungoikozkoak lagundu zion, eta konfessorearen esana seguru egitea, beti agintzen zion. Marta eta Maria Josefa-ren egitekoetan bat egiten ziran, eta onen borondate fiña beti zuzen eta firme Jainkoagan zegoen. Memoria eta adimentua beste beargaietan, bear zanean, arazotu gabe ibiltzen ziran. Ikasbide au Ama Santa Teresak San Franzisko Borja andiari agertu, eta Santuak zeruko Maisuak bezela, beregan ikusten zuena, ala oi zala, esan zion.

Ikusten edo ezagutzen etzituela utsegiñ edo kulpak irudituta, txit kezka andia artzen zuen. Aur bat bere amagana bezela, Josefa bere Esposo Jainkozkogana, beldurak bezela, biurtzen zan, eta onek bere amore gozoarekin esan oi zion segurutzeko: *Ondo zaude: Nik nai dedanetik beñere irten etzera. Nere grazian beti egon zera. Beñere gogon jo ez nazu.*

Onetako erregaloakin Jaun amoretsuak bizkortzen zuen, eta bere beargai eta egiteko aurrera espiritu geiagorekin egiteko konsolatu zuen. Bere utsegiñ edo ezbeharak Jaunari erakusten zegoen batean, Jaunaren Biotza kanpo eder zabal baten gisa erakutsi zion, eta Josefa an sarturik zegoela, eta bere Esposa leiala erregalatzeko, esan zion: *Zu nere biotzean zaude, eta ni zurean.* Josefa umillak esan zion: *Ai, Jauna, eta nola izan diteke nere biotz loi onetan zure Majestadea egotea?*

Zan naigaberik txikiena ere Jaunari ez emateagatik, bildurtzen zan, eta bertan illtzeko gogo bero bizi batek ematen zion: eta Jaunak esan zion: *Ez orrenbeste ikaratu. Ni etorriko naitzatzu egunaz, eta ez gabaz.* Josefak esan zion: *Jauna, orretan zer esan nai dezu? Egunaz ni illko naizela?* Orduan Jesus onak argiro esan zion: *Ni etorriko naitzatzu egunaz eta ez gabaz, zeren kulparen gaur zagan ez arkitu, eta ez arkituko ere dedan.*

Abadesa izan zan artean Josefak Jaungoikoagandik artu zituen urri-kaltasun, promes eta miragarritzko mesedeak, liburutxo onetan egiaz eziñ esan edo konta litezke, eta oriekin erlijiosak añ ederki Jainkoaren eta munduaren begietan beti Erregla santuan zuzen eta ejenplo guziz ona emanaz gorde zituen. Orien artean miragarritzko neke santuak artu, eta bere beargia bukatu zuen.

ZORTZIGARREN BURUA

BERE GAITZ-AZKEN, ETA ERIOTZ DOATSUA.

Onelako beargaiaren egite koetatik irtenda, irtenda, zeruko gauzetan pensatzeari bere buruak oso eman zion. Jaunaren ontasun neurrigabea zan bere erregalo guzia, eta beragana denbora eta leku guzietan ark bakarrik zeraman. Eriozko gaitzak artu baño lentxeago bere orazioan, eta kordegabetze gozo batean anima autu au laztan añ estuakin bere Esposo Jainkozkogak artu zuen, non ta, zer esan, edo nola hitz egiñ etzekien: iñondik ere bere zeruko atea idikitzen zala, edo eriotza lasterraren berri onak eman ziozkan.

Gauza miragarri edo ikuskari eder bat Jaunak erakutsi zion: ate andi bat bi aldetara idiki zion: baña bitartean zegoen kortiña batek au barrunen zegoena ondo ikustea galerazten zion. Adierazo zion Jaunak, leku eder aiek biak Jesus eta Maria zirala. Zeruko Ateak Ama-Semiak dira. Baña zeruko atea txit estua zala, Josefak beti aditu, eta duda orretan umillkiro eskatu zion, orretan engañatzen arren utzi etzezala. Jaun amoretsuak esan zion: *Zeruko atea andientzat estua da, eta txikiatzat zabala da. Andiak soberbiotsuak dira, eta txikiak umillak dira.*

Otsaillaren emezortzigarrenean azken-gaitzak oieratu zuen, eta bertatik erlijiosak kezka andian sartu ziran. Bere konfessore D. Agustin Jauna bereala ekarri zuten, eta eriak, errekonziliatu, eta ill-bearra zala, esan zion. Medikuak bere egiñ-al guziak gaitzetik ateratzeko egin zituen; baña alperrik, zeren Jainkoak besterik nai zuen. Bularra txik estu, eta itotzeko zorian zeukan, eta konfessoreak esan zion Elizakoak artu obe zuela, gaitza aurrera zijoalata.

Betiko obedienziarekin esan zion: *Berorrek nai duena.* Jaiera guzizkoak bere Jabe Jaungoikozkoa artu zuen; eta eskerrak emateko bakarrik utzi zutelako, an aldean zan Erlijiosa batek aditu zuen: amore eztiitsu batez esaten zuela, *O zeñ Jaun ederra! O ta zeñ ederra!* Lagunak orazio andi asko eginta, esaten zioten: guzien konsuelorako osasuna Jaunari eska ziozala; baña Jainkoagan osoro zegoen Josefak, beti firme, Jaunaren berri edo borondatea ondo zekusanak bezela, esaten zion: *Jainkoak nai duena; Jainkoak nai duena.* Oleazio Santua artu obe zala, Konfessoreak esan, eta lengo pake santuan esan zuen: *Berorrek nai duena.* Medikuak esan zuen, Konfessore Jauna an gera zedilla; baña Josefak esan zuen, gau artan illko etzala.



Ala ere esan ziotenean oleatzeko bear bazan, barrunen egotea obeto izan-go zala: orretarako bai, Josefak esan zuen.

Gau erdian golpe estu batek artu zuen, eta illtzeko zorian jarri zan. Konfesoarea zeldan sartu orduko beregandu zan, eta Oleazioa nai zuela, esan zuen. Sakramentu Santu au artzeko bere umilltasun guziaz erlijiosai barkazioa eskatu zien, zeren, berak zionez, ejemplo gaiztoa eman zien: gero fede eta jaiera gozoaz oleatu zan. Bereala begiak itxi, eta Jaunari eskerrak ematen barrunen sartu zan. Ama Abadesak hitz on batzuek esan, eta Josefak esan edo eranzun zion: *Ama, artu dedan ondasunaren eskerak Jainkoari ematen nago.* Konfesoareak esan zion, nola Sakramentu Jainkozko arekin erregalatu zuen, eta Josefak arpegi alai batekin eranzun zion: *Jauna, orañ nai-erara nago.*

Erlijosak meza enzuten zeuden eta an geratu zanak gauza miragarri bat ikusi zuen; bada Josefak bere espirituko pozaren pozez zerbait ikusten, edo zeruko auzoan zegoenak bezela, far-aldi gozo batzuek eman zituen. Egun artan Peñafiorida-ko Andre kondesak Pillareko Ama Birjiñaren, zeruko ondasun anditizat Zaragozatik ekarri zuen soñekoa bere amorearen siñaleztat bialdu zion. Pozaldi andi bat Josefak artu zuen, eta mantu santua bere buru aldean ipiñi zuen. Bere azkeneko konfesioa egiñ baño len D. Agustin Jaunari esan zion, zer zeruko konsueloa mantu sagra-duak eman zion, eta Ama Birjiñaren prenda artan beraren, eta Santiagoren, deseaten zuen zerurako anparoa seguru zeukala. Konfesatuta esan zion aren ordua aldean zala. eta Jaunaren aurrean bere obrak ikusiko zira-la, bere gogoerakoak izan ote ziran.

Bere bizian eriotzaren beldur oi zan; baño orañ pake txit gozo santuan bertan begiratzen zion. Konfesoareak geiago azken-orduan anima zediñ, esan zion: Konfianza osoa Jainkoaren ontasunean iduki zezala bada, ezaguturik aren ofensarik beñere egiñ etzuela. *Ala da, Jauna,* esan zion, *eta esperanza osoa daukat, ainsteste zor diodan Jaun onak ordu onetan gordeko nauela.* Estu ta nekez bularretik bazegoen ere, konfesatu eta animatu zan esatera: Nere utsegin guzieren damu andia daukat, eta ez infernuaren beldur edo zeruaren esperanzagatik, ezpada zeren Jainkoaren Ontasunaren kontra diran. *Nere damua beti onegatik izan da, eta ez gloria edo infernuagatik.*

Gero Abadesa Andreak esan zion: *Ama Josefa, Ama Santisimak bere mesede bereziak ordu onetan animai egiten dizte.* Eta Josefa ditxatsuak esan edo eranzun zion: *Ama, amen dago.* O zer bisita! O zer erregalo bearrena, eta paregabea! Edari bat lo egiteko eman zioten, eta txit ixill geratu zan. Lotan zegoela uste zuten; baño soseguzko eriotzaren loa zan. Konfesoarea sartu, eta pulsu eta hitzgabe topatu zuen. Lenago Josefa beregan zegoela,

kandela puskatxo bi berak ebaki, eta esan zuen, erlijiosak zortzietan Maitinak asitzean, biak irazaki eta Jesus Nazarenoaren aurrean koruan ipiñi zitezela. Mirarizko gauza: zortzi ta erdietan konfesoareak Jesus maitearen imajiña Josefa-ren begietan ipiñi, eta Jesus-Maria eta fede, esperanza eta amorezko aktoak esaten ziozkala, ikusi zuen, nola Josefak Jesus-en biotzeron ziru bider burua makurtu, eta beste agoni gabe txit ez tiro bere espiritua eman zion, eta kandela biak punta artan aitu ziran. Beti bizi izan zan bezela, Jesus-en Biotzean ill zan.

Onela Santa Cruz-ko argi ederra, zeruko Jesus Nazarenoaren argiak bezela, itzali edo bukatu zan. Josefa-ren anima garbia bere Esposo argiderraren gozaldi betikora igo zan, eta aren gorputza negar ta deadar, adia eta inziria andien artean erlijiosen artean oien penagarri geratu zan, zeren lagun santa guziak illun eta umezurtzak bezela bakar geratu ziran. Komentuan, eta ango illezkillen soñu tristearekin erri guzian luto andia izan zan. Baña laster Jainkoak zeruko siñaleak, ditxazko gorputzarenak anima justuaren gorputz artan eman zituen. Gorputz artan egon zan anima esleituaz oroitu, eta bizi zaneke aren santutasun, umilltasun, mol-desia, pazientzia, karidade eta zeloaz, aren zeruko konsejuaz, Erregla santua ondo gordetzeko eresi biziak eta ejerzizio eta ejemplo santuaz oroituta, biotzak guziaz penaz erdiratzen zitzaizten. Ikusten zuten Etxe santu ori espirituko eta lurreko gauzetan aurreratzeke zenbat bere orazio luze, eta beroakin egin zuen.

Baña orretan bertan zeruan guzieren bitarteko ohea zeukaten anima doatsuak esperanza osoa eman zien, eta orren mirarizko siñaleak gorputzean ere, animaren prenda ederrak bezela, beren eta guzieren konsuelorako zeuzkaten. Beko koruan kaja batean berezi lurra emateko, moldesia guziarekin agirian ipiñi zuten. Penazko eta atsegiñezko negar gozo asko ikusi ziran. Jaieraz beterik guziak begiratu, eta arriturik eziñ ikustez ondo aspertu ziran. Errespetozko arpegi zuri garbi, eta eder añ osoa, edade artan eta ark eraman zituen neke gogorrakin mirari bizia zan. Guziaz, bizi baten gisa, nolana mugitzen zuten: beste gorputz illak bezela iñor ere izutzen etzuen, baizen begiratzeko eta jaieraz ikusteko gogoak guziaz ematez zitzen, aren animak zeruan zuen gloriaren siñale askorekin.

Bigaramonean Parrokian Kabildoko entierroa zuten, eta Azpeitiko sei Apaiz Jaun, erriko al zutenakiñ etorri, eta elizkizunak, oi bezela, egin zituzten. Gero Azkoiti eta Azpeitikoak beren egunetan onra guziz ederrak beren jaiera eta estimazioaren siñalean, musika eta sermoiak Santa Cruz-en egin ziozkaten. Maisu D. Agustin Agirre-koak, paper guziak zituenak bezela, Azkoitiko Sermoian bizitza onetan kontatzen diran ejen-



plo eta bertute asko predikatu zituen: eta Azkoitiko erri nobleak moldizkidatu, eta Obispo Jaunari dedikatu zion. Onek biziro estimatu, eta erriari eskerrak eskribatu ziozkan. Azpeitiko erri noblearen onretan Aita Presentadu Frai Bizente Etxeberri, Santo Domingo-ko Predikari nagusiak predikatu zuen.

Onra oietara Josefa Beneragarriaren sonak, eta beren jaiarak Probinzia eta Bizkai-ko urrutietatik jendeak ekarri zituen. Bitartean erri oietatik besteetara aren ospe andia jaiarak banatu zuen. Guziak *Santa Josefa*, *Santa* deadarrez zioten, edo izen ori jendeak ematen zioten. Aren mirari eta bertute andiak, eta Jaunaren zeruko doaiak guzien aotan eta mitan ziran: ez emen auzo edo alde oietatik, baita ere beste Probinzi eta Erreinetatik aren erlikien eske ziran; fede eta jaierez gordetzeko. Ala erlijiosak egun askotako lana izan zuten aren toka, belo, habitu eta orrelakoak puska txiki egin, eta guzien artean zabaltzen. Orra justuen oroipena bizitza on eta eriotza preziatuaren ondoren zeñ gozo eta maitagarriak diran.

BEDERATZIGARREN BURUA

IRAKURLE GAZTEEN PENSAKIZUN EDERRAK BIZITZA ONEN GAÑEAN.

Orañ neskatxatxo irakurle maitea, nik nai nuke zuk emen puska bat ondo pensatzea Jainkoaren esku ezkutatuak, eta bere ontasun agiriak animak zerura eramateko dituen bide-modu ederrak. Begira ondo Josefa Beneragarria Jainkoak nola beretzat txikitatik siñalatu, eta onek bera zeñ zuzen beti billatu, eta ditxa andiaz arkitu zuen: nola Jesus argi Jaungoikozkoak aurrerako bidea erakutsi, eta Josefak biziro eranzun, eta leialki jarraitu zion. Begira zure deboziorako aurrerazanetarik Ama Birjiñak zer ikusaldi erregalatu eta mesede agiriak anima garbi oni egiñ ziozkan; eta onek aren mantupean bere donzellatasun garbi edo kastidateko promes osoa eman, edo agindu, eta lorerik ederren ori Donzellen Amari gorde zion.

Oroi zaitte Jesus bere Esposo maiteak Josefa-ri eta guzientzat eman zion ikasbide Jaungoikozkoak: ondo ikasi eta biotzean josi ezazu. Esan zion bada: *Nere Amari deitu bear diozu: bada orren bitartez nere graziak animai ematen diztet.* Ama Birjiñaren amore eta konfianza oso au zure deseo, obra eta hitz edo hitzketetan bere Semeari atsegin egiteagatik alegiñaz beti guzietan aurrera zazu. Oroi zaitte, Jesus maittesuak nola Josefaren amore garbia iru bider esamiñatu zuen, eta onek bezela Jesusen Biotzeko amoreari ondo eranzun zaiozu.

Begira, ondo Esposo ontsuak Josefa bere penetan animatzeko, nola segurutu zion: *Ondo zaude: Nere borondatek beñere aldegiñ eztezu: Nere grazian beti egon zera: Beñere gogoan jo ez nazu, Nere amarez illko zera zu.*

Begira Jesukristok Josefari egiñ zion eskañtza edo promes jainkozkoa, edo eriotzeko orduan bera etorriko zitzaiola: eta kulparen gaua aren animan ez arkitu eta ez arkituko zala. Begira azkenik, nola Josefak bere eriotzeko orduan esan zuen, Ama Birjiña berekin, edo an zuela. Bada Jesus eta Maria arekin bazeuden, Santu guzien lenen Jose guziz doatsua, eta Josefa ditxazkoaren biotzeko santua, an egongo zan. Jesus, Maria ta Jose, zeruko Erregiak zeuden lekuan, aien Korteia, edo Aingeru eta Josefa-ren jaiarako Santu bitartekoak an egongo ziran. Argatik Josefa ordu artan añ ixill, eta zeruko pake gozoan aiekin zegoela, ill zan.

Ikasbide oietatik, kristau on, edo neskatxa garbi irakurlea, kontu on bat, ondorengo seguru bat zuk ateratzea, nik nai det. Illtzen zaudela



kontu egizu, eta zere buruari galde: Ordu artan nik zer naiko det? Edota munduko aberats erregalatu, andinai, soberbiazko aizez beteak bezela, eragabeko beren griñen erara eta orien esklabo billau beti bizi izan? Edota Josefa umill, ixill, ilduratua bezela pobre jaio, pobre azi, pobreak bezela bere gurasoak bear zutena billatzeko bearra galanki egiñ, beretzat ontza gutxi janari, orazio eta penitencia gogor asko; ez letra andi, edo aizezko jakintasunik: orietatik utsa; baña zeruko argi eder eta amorez betea, beti bizi, eta pakean aren gisa ill? Bietatik zer naiko det? Bada au nere aukeran dago: Jaunaren graziarekin nere eskuan dago: eta laster nere eskuan egongo ezta. Ekin, bada, lan oni: ekin bereala eta gogotik. Zu ta ni biziera santu batean bertatik asi gaitean: eta aren gisa, eriotza guretzat zeruko ate izango da. Ala izan dedilla.

AMARGARREN BURUA

JOSEFA BENERAGARRIAREN ZENBAIT BERTUTE, DOAI ETA MIRARI BEREZITUENAK.

Josefa miragarriaren bertuteetan sartzea ondogabeko itxaso batean ondatzea deritzat. Aren Fede, Esperanza ta Karidadea edo Amorea, bere bizi guziko jardun-gaiak izan ziran. Fedean aurtasunetik zeruko mirari bat berea izan zan. Nondik edo nola eztakigu; baña edo Aingeruak edo Ama Birjiñak bere lenengo agerraldian, arrazoiaren ezagueratik bereala, dotriña jainkozkoa, edo fedeko misterioak maisu eta eskolagabe ederki eta argiro ikasirik geratu zan, eta jakintsuak bezela guzien arrazoi eman zuen. Sakramentuetan orobat, eta batez ere Aldareko Sakramentu, edo Eukaristia Jainkozkoaren fede guzizkoa, eta edade artatik betiko biotzean josi zitzaion fede, eta Jesus-en Biotzeko amorea, eta añ sarri, edo egun oro komulgatzeko deseo, gose eta egarri bizi beti zeukana iñoiz beregandik kendu ezin zuen.

Jainkoaren ontasun baztergabea, bere ispillu jainkozko onetan ikusi eta aren fedearen betezarri edo gai eragillea zan. Andik Jaunaren obra miraritsu, bere amoreak gure alde eragin ziozkan Misterioak, edo Gizon egitean gure aragiz jantzirik agertu, eta zerurako bidea ogeita amairu urtean bere dotriña, mirari eta ejenploakin erakutsi zuen: nola bere Pasioan, ill baño len, miraririk andien, edo amorezko Sakramentuan ezkutaturik guretzat geratu zan: mirari oietan Josefa-ren fedeak bere jardun-gaia oi zuen.

Fede onetatik aren esperanza firme segurua jaio, eta bere biotzean alako sustrai sendoak ezarri zituen eta gertaldi askotan miragarritasun andien frutu ugari eta miraritsuak animen salbaziorako eta komentuararen onerako Josefak bere orazioan atera zituen. Bizitza labur onetan esan diran gauza mirarizkoren batzuetan au ondo ikusi zan, Fede eta Esperanzaren ondoren bertute guzien Erregiña edo Karidade edo Amorea dator: eta Josefa amoretsuaren biotzera bere aurtasunetik amore eder au txit ugari edo neurrigabe etorri zan, eta onen bizi guzia bere Jabe bakarraren Ontasunaren amore bakar izandu zan. Amore onezaz bizi bazan, beraz erretzen, urtzen, desegiten eta illtzen zan. Onen gañeko gerra-aldiak eziñ banaka konta litezke: eta egia garbiro esateko, Josefa maitetsuaren inten-



zio garbi tolesgabea eta deseo nasgabe guziak zeruko karidade garbi onen suak eta garrak, edo labe bizi, Jainkoak bere amorez irazeki bat, izan ziran.

Amore onen siñale seguruak ziran Jesus maitearen Misterio guziakin zuen jaiera beñere ase etzan eragille bizia. Jesukristoren jaiotza, zirkunzioa, eta bizitza, eta onen pasio santuko pauso eta penak Josefa bere Esposaren amorezko ta dolozko erregalo jainkozkoz betetzen zuten. Zer esan liteke bada Jesusen Biotzeko amore ondogabeak Eukaristia edo Sakramentu orretan Jaunaren Ontasun guziaren iturri bizian Josefak zituen ondasunaz, eta komunio Sagradurako aurtasunetik asi ta gero bizi guzian iduki zuen su ta garrezko egarri biziak? Mirari esan baño andiagokak komunioetan ikusi ziran. Komunioa zan beti aren zeruko erremedioa, eta osasuna.

Ama Birjiñari Josefak zion amorea zeruko ezti edo esne gozozkoa zan, eta Ama maitagarriak txikitatik bere alaba estimatu onen biotzean sekulako josi zuen. Onetan eta bere San Jose maitetsuaren, San Migel eta baste jaiarako Santuak anima garbi au doai eta mesede andiz bete zuten: eta Josefak ori ondo ezagaturik, orien amorean neurri edo modurik eziñ arkitu zuen. Fede, Esperanza eta Amore onen antzekoak ziran beste bertute nagusiak. Guztizko aren Karidadea, guzien ongille bere konseju santu eta betiko orazioakin on egin naia, animen salbaziorako bere zelo eta egarria ezin esan ditezke.

Bere ongilleekin Josefak iduki edo gorde zuen esker onaren legea, intenzioaren garbitasuna bezela bere jaiarako Santu maite San Ignazio-gandik ikasi edo artu zuen. Batean edo bestean bere biotzeko fintasunik garbienaz jarraitu zion. Ala Santua, nola Josefa onetan txit asko siñalatu ziran. Bientzat egiñal guzia gutxi zan, eta ongilleai pagatzeko zer egiñ etzekiten.

Anima ditzazko onen espirituko pobreza aren ama maite, eta ondasunik estimatuen beti izan zan: lurreko gauzen premia gutxi, añ beartsua zala, ikusi zuen: eta emen bean bere zeruko biotz aberatsak zer-erantz gutxi arkitu zuen Jainko guzia berea zuen, eta besteren bearrrik etzuen. Garbitasurean añ goiz borondatearekin konsagratu, eta gaitzgabetasun garbian beti aingeru izateko Jainkoak gorde zuen, Obedientzia bai, eta beste nairik, eta ez zerurako beste bide segururik ez oi zuen. Bere Esposo Jainkozkoaren antzera, ill arteraño obeditzalle beti egin zan. Egiatzko bere umilltasunak ondorik ikusi etzuen: egunoro Jainkoaren eta bere lagunaren arrear ezereza, eta ala umillago zan.

Josefa miragarriaren neke-penetako pazientzia eta eramana, aren penitenzi, mortifikazio eta beste santutasunen siñaleak ñolabait esan dira,

eta esankizun geiago da. Orañ Jainkoaren doai, edo grazia siñalatu batzuek esan bear dira. Etorkizunen berri Jainkoak daki, eta beraren argi edo profeziaren doaiarekin Josefak txit askotan etorkizunak ezagutu, esan, eta ark esan bezela gertatzen ikusi ziran. Santa Cruz-ko komentua zierto fundatuko zala, eta Engrazia Kristo-rena, eta Klara Enkarnazio-koa an moja izango zirala Jaunak argiro agertu, eta fundazioan pensatu baño urte askoz lenago esan zien, eta ala gertatu zan.

Engraziari beñ esan zion: zure dotea onelako obran Santa Cruz-en gastatuko da, eta berak ala ikusi zuen. Ama Klara-ri Loiolako Kapilla santa onetan konsuelo andiko profezia bat esan zion, eta esan ziona txit zuzen ikusi zan.

Logroñon zegoenean Josefa konfesatzen zuen Jesuitak Ama Maria Teresa abadesari kontatu zion, profezia bi Jesuitari esan ziozkala, eta biak Jainkoak bete zituela.

Abadesa onek berak perill andiko anditsu bat zeukan, eta barberoak-jardun bearko zuelako beldurrez txit estu zegoen. Josefa-ri bere nai-gabea kontatu, eta onek segurutu zion, gizon bearrrik izango etzuela, eta sendatuko zala; baño bere garbitasunezko moldesiagatik Abadesa beldur zan. Eta Josefak esan zion: Ez, Jainkoak esan dit gizon bearrrik ezta, eta orretatik sendatuko dala; ala sendatu zan.

Profezia txit agiria izan zan erri oietan. Nobizia bat Santa Cruz-en uste zan: arentzat serbilleta bat eskatu, eta Josefa Santak esan zuen: ez bat, iru serbilleta bear dira. Mojak farraz zeuden; baño laster profezia ikusi zan: bada Ama Jazinta San Migel-ena nobiziatzat Azpeitiatik zetorrenak, lagun bi berekin ekarri, eta biak Jazintarekin supitoan moja sartu ziran: bi oiek Fausta Jesus-ena eta Maria Josefa San Gabriel-ena izan ziran: eta irurak luzaro neronek Santa Cruz-en ezagutu nituen.

Era askotan onela etorkizunak eta biotzetan askok ezkutuan zeuzkatziten gauzak Jaunaren argiak agertu, eta Josefak esan zituen. Esan diran Abadesa eta lagun asko testigu izan ziran. D. Agustin Agirrekoak berak kontatzen du orrelako mirari baten testigu izan zala; eta nerekioko D. Agustin berari profezia siñalatu, guziok ikusi genduen, gertatu zitzaion. D. Franzisko Idiakez, Valladolid-en ill zanean, zeruko argiz berri ori jakin zuen. Kapilla santa onetan meza enzuten zegoela, D. Jose Zuzola ill zala ikusi zuen; eta orobat onen ama D.^a Ana Lasalde noiz ill zan, eta bere konfessore Aita Zupide Loiolan Jainkoak noiz eraman zuen.

Pekatuan zeuden askoren kulpak, munduan bizi zala, argiro Jainkoak aien erremediorako erakutsi, eta Konfessoreari esan, eta ziranak penitentzia egiñ, eta Jaunaren bidean jarri ziran.



Beste mirari andi asko ikusi dira, eta mesede txit siñalatuak Jaunak bere Josefa maitea onratzeko egin ditu. D.^a Maria Josefa Baronesa Ilustre D. Agustin Agirre-ren illoba, eta bearrekoen egiazko Ama, aurgitetik txit estu, eta iltzen zegoen. Estura artan bere Amandre D.^a Juana Corral-ek ikusi, eta lasterka Ama Birjiña eta San Joseren Desposorioko Josefa Santaren estanpatxo bat eman zion. Fede biziari ori artu, eta Abe Maria bat baño len ditxarik andienaz aurra egin zuen, eta au an zeuden guziak miraritzat ikusi eta kontatu zuten. Osaba D. Agustín-ek Señora au examiñatu, eta esan zion, beti Zeruko mirari anditzat, eta Josefa Santaren mesedetzat iduki zuela.

Villaerrealen au gertatu zan: eta andik laster beste mirari bat. Josefa Lekuona illabete osoan aurgiteko oñaze-miñak txit estutu zuten: azkene-ko iru egunetan are geiago, eta emagiñak zekusela, argalez Legiak eziñ idiki, eta illa bezela geratu zan. Aren Ama negarrez desegiten zan. Auzoko Andre bat estuasun artan Josefa Santa-ren estanpa esan danaz oroitu, eta, lasterka joanta, eskatu zuen. Mirari andia! Estanpa ori eman, eta bertan aurra egiñ eta osasun betean geratu zan.

Villaerreal-en bertan Franziska Aranburu terziana txit luze eta gaizto batzuekin galdurik arkitzen zan. Aren trabaju gogor eta pobrezaz Baroi Jaun D. Jose Areizaga-koa kupituta, Josefa Beneragarriaren toka puskatxo bat fede guziaz bialdu zion. Ori Andre gaxoak artu zuenean, sukar bizian sartzeko ordu gutxi palta ziran; baña ez egun artan, eta ez aurrera, geiago gaitza etorri zan: eta osoro libre Josefa-ren bitartez geratu zan.

D. Juan Fernando Ibaseta eta D.^a Daria Mikaela Olaberen semetxo zortzi illabeteko bat Lekeition kalentura bizi estu batek artuta, Medikua itotzen ikusi, eta dudagabe illtzen zala, sinistu zuen. Aren guraso jainkotiak Josefa-ren txit adiskide eta jaietakoak izandu ziran: eta semea agonian ikusi, eta fede biziari are toka-puska bat bularrean ipiñi zioten, eta urretelazko kasulla bat Santa Cruz-ko komentuari egitea promestu zuten. Bereala semea sosegatu, eta osasuna iritxi, eta guziak deadarka, miraria, miraria! barreatu zuten. D. Franzisko Urrizola mediku sonatuak ori guzia ondo pensatu, eta esan zuen: aren osasuna gauza berezko edo oi-bezelakoa etzala, ezpazan berezkoaz gañekoa, edo Jainkoarena, eta oni guztiak eskerrak eman ziozkaten.

Onelako beste asko emen falta dira: eta paper gutxian guziak eziñ esan. Gure Jainkoa bere esleituetan beti miragarria. Josefa bere Esposa miragarriaren miraririk andiena Josefa bera bere bertute arrigarrietan izan zan. Onen bitartez Jainkoak guziori bere grazia digula, aren biotzeko intenzio santa garbian ari jarraitzeko, eta ark bezela amore andiaz Jauna-

ren gogoerako dana, eta Jaunak nai duena, beti egiteko orañ geron bizi-tzan eta gero beti-betiko glorian. Amen.

AZKENA

